

BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

JOSU AIZPURUA

LURRARI ETA NATURARI LOTUTA

Batxilergoko aurrematrikulazioa Martxoaren 28tik apirilaren 8ra

ATE IREKIAK


Martxoaren 30ean 18:00etan edo aldeztu aurretik hitzordua hartuta

Modalitateak: Giza eta gizarte zientziak

Zientzia eta teknologia

Berrikuntza! Batxilergo Orokorra

Aita Mari, 45. ZUMAIA • Tel. 943-89 92 53
idazkaritza@zumaiaabhi.eus • www.zumaiaabhi.hezkuntza.net


ZUMAIAKO HERRI ESKOLA
**ZUMAIAko
INSTITUTUA**





ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaiia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



Casa BASUSTA

LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11

www.floristeriabasusta.com



BALEIKE 319

2022-APIRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 4 | Hitz tantak Jabi Gonzalez Toston
<i>Olatz Bereziartua</i> | 25 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Gurasoak, SUPER HEROIAK?</i> |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Maria Teresa Lorente Alonso</i> | 26 | Plazan bazan |
| 8 | Hainbat aburu Jone Telleria
Arrieta
<i>Hitzekin / 22. Korrika</i> | 29 | Zientzia eta ingurumena Euskal
Kostaldeko Geoparkea
<i>Belztasuna Goi Kretazeoaren
zurrunbiloan</i> |
| 9 | Errematea Miren Osa Galdona
<i>Aldaketak</i> | 35 | Argazki artxiboan barrena Juan
Luis Romatet
<i>Santelmoak bizitzeko era
desberdinak</i> |
| 10 | Elkarrizketa Maria Maya
Manterola
<i>Nerea Machado: "Mendebaldekoak
behar ez den lekuetan muturrik
sartuko ez bagenu, ez litzateke
halakorik gertatuko"</i> | 41 | Kultura Baleike
<i>Teloia jaitsi aurretiko azken txanpa</i> |
| 15 | Erreportajea Juan Luis Romatet
<i>Geologoa artaldearen gidari</i> | 43 | Agenda |
| 20 | Erretratua Onintza Lete Arrieta
<i>Angel Olabarria, zapataria</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>Sortaldekoak</i> |
| | | 45 | Nire txanda Esti Curiel
<i>Bizipoza</i> |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Abelin eta Bergman</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria
Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea

Diseinu arduraduna
Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna
Felix Aizpuru
publizitatea@baleike.eus

Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Olatz Bereziartua

TESTUA: JABI GONZALEZ TOSTON

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Bederatzi urte igaro dira Olatz Bereziartua Aizpurua (Zestoa, 2000) Telmo Deunera batu zenetik. 2013ko irailean hasi zen arraunean, eta laugarren denboraldia du aurtengoa talde nagusian. Lehen estropadak jokatura, ilusio handiz begiratzen dio ekarriko duenari. Talde gaztea dute, txoko askotako arraunlariak osatutakoa, baina ederki konpontzen dira.

Lotura estua du arraunak kostaldearekin halabeharrez, baina barnealdean ere badira arraunlariak, zeu bat. Mitoa hauspotzea al da arrauna kostako kirola dela esatea?

Egia esan, gure taldean, behintzat, bagara batzuk mito horrekin apurtzen dugunok. Dezente gara Urola Kostako barnealdeko herrietakoak: azpeitiarrak, azkoitiarrak, ni zestoarra... Bi nafar ere ia hasi ziren gurekin, bata, Lesakakoa eta aurrez Hondarribian aritutakoa, eta bestea, *crossfit* eta mendian korrika egiten duena, baina arrauna probatu nahi zuena. Autoan hainbeste joan-etorri egin beharrak bota zituen atzera.

Zure kasuan zerk animatuta hasi zinen arraunean?

Zestoan ez dago kirolerako aukera askorik. Futbolaz haratago, ezer gutxi. Hasiera batean, DBH garaiko lehen urteetan, futbolearen aritu nintzen, baina ez nintzen ona sentitzen, eta uztea erabaki nuen. Era berean, geldirik ere ez nuen egon nahi, eta lagun bat eta biok arraunera animatu ginen. Lagunak denboraldi bakar bat ere ez zuen egin azkenean; nik, berriz, hemen jarraitzen dut.

Zer du arraunak beste kirolek ez dutena?

Taldeko giroak harrapatzen zaitu. Arraunarekiko eta taldearekiko konpromisoak batzen gaitu, zeren eta, hortik kanpo, bakoitzak bere bizimodua du: familia, lagunak, lana edo ikasketak... Nire kasuan, adibidez, erizaintzako ikasketetako azken urtean nabil, baina hala-nola, beti moldatzen naiz entrenamenduetara heltzeko, eta ni bezala, gainontzeko taldekide guztiak. Beraz, ezin hobeto ulertzen dugu elkar. Azken batean, entrenamendu

asko egiten ditugu astean, eta denok alboratu behar ditugu gustura egingo genituzkeen gauzak. **Arraunari loturiko beste mitoetako batek denboraldiaren iraupenarekin du zerikusia. Estropadak ez dituzue udan soilik izaten, ezta?**

Ez. Urtarriletik apirilera arte batelen liga dago, eta hori amaituta, trainerillena izaten da apirilean eta maiatzean. Bigarrenean ia klub guztiek hartzen dugu parte; batelen lehiaketan, aldiz, gure kasuan behintzat, seniorrok ez dugu ohiturarik. Egingo bagenu ezingo genuke traineruan entrenatu; bestela ere nahiko larri ibiltzen gara ontzia betetzeko.

Entrenatu ahal izateko hamahiru arraunlari agertu behar...

Bai. Taldea osatzeko, gainera, gutxienez hamazazpi laguneko taldea osatzea komeni da, eta aurreko denboraldian ere muga-mugan ibili gara. Hasiera batean hamabi edo hamahiru bakarrik ginen, baina azkenean hamazazpi laguneko taldea osatzea lortu dugu. Hori bai, ia erdiak – zazpi – jubenilen taldetik igo behar izan ditugu.

Beraz, ezin esan eskarmentu handiko taldea duzuenik aurreko...

Askorentzat lehen aldia da traineruan, bai. Hala ere, ezin hobeto konpontzen gara eta itxaropentsu gaude udako estropadei begira. Datorren urtean zortzi traineru izango dira Euskotren Ligan, eta bertan aritu nahi dugu. ETE ligako lehen biak zuzenean igoko dira, eta hirugarrenak *play off*-a jokatuko du. Borroka horretan egon nahi genuke eta Kontxako banderaren lehiara itzuli. Iaz kolpea jaso genuen sailkapen proban.

Zuretzako ametsa betetzea litzateke bi helburu horiek lortzea?

Osatu dugun taldearekin, mailaz igotzea eta gorengo mailan elkarrekin denboraldi bat egitea sekulakoa litzateke, ezingo nuke gehiago eskatu. Dena den, ez dut gogoko halakoetan pentsatzea, ez naiz titulu goseduna. Arraun zalea eta lehiakorra banaiz, baina, taldea da betetzen nauena. Zumaian ezagutu dut arrauna, eta iruditzen zait hemendik kanpo ez nukeela berdin gozatuko. ■■■



Maria Teresa Lorente Alonso

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Eibarren jaio nintzen 1962an. Gure aitak Ayra Durexen egiten zuen lan, eta nik 11 urte nituela etorri ginen Zumaia bizitzera. Kostatu zitzaidan herrira egitea; Eibar puri-purian zegoen, eta Zumaia, berriz, oso herri lasaia zen. Lagunak Eibarren nituen, eta asteburuetan hara joaten nintzen lehen urteetan. Oraindik ere lotura handia dut Eibarrekin; lagunak ditut, kuadrilla, baina ez nintzateke hara joango bizitzera.

Zipi Zape denda 1990ean zabaldu genuen. 32 urte dira dagoeneko! Bere garaian, lagun batekin hizketan, litxarrerri denda bat zabaltzeaz hitz egin genuen. Gure amak Durangon duen familiarteko batekin ere hitz egin nuen; hark biltegi bat zuen, eta gozokiak eta fruitu lehorrak banatzen zituen dendetan. Esan zidan denda nik eramaten banuen, berak muntatuko zuela. Eta hala egin zuen. Dendaren jabea eta haren anaia oso-oso desberdinak ziren. Horregatik, dendaren izena aukeratzekoan, erabaki zuten Zipi Zape deitzea, komikietako pertsonaien omenez. Beti egon gara leku berean. 2017an erretiratu zen, eta ordutik ni naiz dendaren jabea.

Lehen hilabeteak oso mugituak izan ziren, ohitu ginen arte. Garai hartan, udako sasoian, eguerditan ere irekitzen genuen. Autozerbitzu moduan egin dugu beti lan, eta horrelako lehen denda izan zen gurea Zumaian. Hurre, Erribera kalean, Manoliren denda zegoen. Beti oso harreman ona izan nuen harekin. Neguan, kalean inor ez zebilenean, itxiera orduan, hizketan egoten ginen, eta senarrak ere esaten zidan zerbait beharko banu, marru egiteko.

Hasiera hartan, denak zuen arrakasta. Patata frijituen poltsa txiki haiek, adibidez. Baina hemen beti arrakasta handiena izan dutenak gominolak izan dira. Beti. Fruitu lehorrek ere bai, agian orain gutxiago, baina gominolek beti. Poltsara botatzen hasten zara, gero pixka bat gehiago... Denda honek ez du umeekin bakarrik funtzionatu; umeek, azken finean, paga bat dute, eta txanponak kontatzen aritzen dira. Denda honek helduekin ere funtzionatu du. 9 hilabetekoak bai, baina baita 99 urtekoak ere. Denak dira gure bezeroak.

Litxarrerietan dena asmatuta dago. Forma batekoak izango dira, bestekoak, baina gozokiak gozoki dira. Betiko gozokiak ondo saltzen dira: Reinetak, Sugusak, betikoak. Itxura aldatuko dute, baina produktuak betikoak dira.

Manolik denda itxi zuenean hasi ginen jostailuak ere ekartzen. Berak proposatu zidan jostailuak saltzen hastea. Jabearekin hitz egin nuen, eta ondo iruditu zitzaion. Oso ondo funtzionatu du. Urte batzuetan katalogoak ere prestatu genituen. Erregeetan-eta asko saldu dugu, baita urtebetetzeetan ere. Noski, konpetentzia hor dago: merkataritza guneak, orain Internet, baina jostailuak saltzen jarraituko dut.

Hasierako ume haiek gurasoak dira orain, eta beraien seme-alabak eramaten dituzte orain dendara. Poz handia ematen dit horrek. Hasierako ume barrabas hura ikusten duzunean urte batzuk geroago bere neskarekin etortzen dela, gogoa eta dena ematen dit esateko neskari nolako umea zen! Eta gero beraien umeekin datoz... Umeekin ibili naiz beti, umeek bizitza ematen dute, eta espero dut nire oroitzapen ona izatea etorkizunean. Dugun gauzarik garrantzitsuena dira umeak, eta zaindu egin behar ditugu. ■■■





JONE TELLERIA ARRIETA

Hitzekin / 22. Korrika

ZERGATIK, ZERTARAKO ikasten du gizaki batek hizkuntza bat?

Bigarren hizkuntza bat ikasteko motibazioaz (beharrez, Maslowrentzat) asko teorizatu da. Bigarren hizkuntzaren norbereganatze prozesu horretan nola, alde batetik, norbanako faktoreak dauden, eta nola, beste aldetik, sozialek ere indar handia izango duten.

Zalantza izpirik gabe esan genezake KORRIKA euskara bultzatzeko herri ekimen bat bezala jaio zela, kolektiboa dela eta, zabaldu eta nazioartekotu eta gero, indartsu dirauela 1980 urrun hartatik bere 22. edizioa aurki betetzear dagoenean.

Bi urtetik behin (salbuespenak albueren) ez digu hutsik egiten, eta hurbiltzen doan heinean, geure

barne-barneko zerbait pizten doa, samurtzen eta bizitzen doa.

Zerbait horrek harro sentiarazten gaitu, EUSKALDUN (euskara dun), kultura eta herri baten parte; tribu berekoak gara, eta konturatzen gara eskuz esku bidaiatzen duen Remigio Mendiburuk diseinatutako lekuko horren barruan, hitzez, euskarazko hitzez beteriko altxorra doala, gure EUSKARA.

Urte asko pasatu dira aurreneko ediziotik, eta hainbat ika-mika ere izan dira bidean, harik eta adostasun batera iritsi eta konturatu garen arte (hala bedi!) euskarak ez duela jaberik. *Izango bagara, euskaraz izango gara.*

KORRIKAK berak ere badu nortasun propioa, kolore, pentsaera edo belaunaldi

ezberdineko jendartea batzeko, norberak euskara berea dela sentitzeko, emozionatzeko eta parte hartzeko.

Nire lukanatik begira, gogoan ditut bereziki 1983-1987 bitarteko KORRIKAK, Zumaiako AEK-ko irakasle izan bainintzen urte haietan. Hemendik besarkada handi bat nahi diet bidali nirekin bertan jardun zuten guztiei, eta omenalditxo berezi bat, berriki utzi gaituen *Abelintxori*. Bere ekarpenagatik, umoreagatik eta transmititzen zigun ilusioagatik.

Izugarrizko *subidoia* sentitzen genuen KORRIKA hurbiltzen zihoanean. Gogoan dut bereziki *Zubeldia sastrearen* lokalean 1985eko ediziorako egindako prestakuntza, non mimoz mozorrotzeko, batzuk besteei aurpegia margotzen zer ondo pasatu genuen. Izan ere, lana

HAUXE BAI JENEROAI!



ERREMATEA



MIREN OSA GALDONA

Aldaketak

Aldatzen da azalekoa /
muina ere aldatzen da /
aldatzen da pentsaera /
munduan dena aldatzen da /
Klima aldatzen da aroz / eta
artaldeak zelaiz / dena aldatzen
da, beraz / ez harritu aldatzen
banaiz / Eskuz esku aldatzen du /
dirdira diamanteak / txoriak habia
eta / arnasa amoranteak /
Ibiltariak bidea / aldatu egiten du
maiz / dena aldatzen da, beraz /
ez harritu aldatzen banaiz / Dena
aldatzen da / dena aldatzen da... /
Dena aldatzen da / dena aldatzen
da...

Gauzez aldatzen da alde /
eguzkiaren sarea / udaberrian
soinekoz / aldatzen da landarea /
Piztiak ilajez eta / aitona zaharrak
bisai(a)z / dena aldatzen da, beraz
/ ez harritu aldatzen banaiz /
Ordea, ez da aldatzen / ezerगतik
nire grina / nire herriaren
memoria / nire jendearen mina /
Bart aldatu zenak bihar / aldatzen
segi dezala / paraje urrunotan ni /
aldatu naizen bezala / Dena
aldatzen da / dena aldatzen da... /
Dena aldatzen da / dena aldatzen
da... / Ordea, ez da aldatzen /
ezerगतik nire grina / nire
herriaren memoria / nire
jendearen mina / Dena aldatzen
da, dena...".

Mercedes Sosa abeslariaren
Todo Cambia abestiaren letra da.
Nago, inoiz ez dela sasoi txarra
hitzok gogora ekartzeko. Geldirik
egoteak lohi usaina dakarrela dio
lagun batek, baina eskerrak
aldaketak geure egiten ditugun;
dena aldatzen baita, baita gu geu
ere. ■

eta jostaketa uztartzeko aukera
bat zen, eta horrek ilusioa
piztuta mantentzeko balio
zigun.

Gaur egun, teknologia
berrien aroan, ZIBERKORRIKA
ere ezaguna dugu. Orduan ez
genuen sakelakorik, eta
telefonoz Zarauzko Joxeani edo
Mutrikuko Auroari deitu behar
izaten genien, eta kotxeak ere
erabiltzen genituen, jakin ahal
izateko non zeuden zehazki
korrikalariak. Zenbat baratxuri
zopa, salda, kanta eta barre!
Denok prest, komunitatean,
korrika egiteko, ordu txikietan
tokatzen baldin bazen ere.

Badatorrela, badatorrela...
Santixon dila! A zer nolako
zirrara!

Eta KORRIKA, gaur egun
zertarako?

KORRIKak badu, baita ere,
zergati ekonomikoa.

Zoritarrez, euskarak baditu,
bai, kontrarioak.

Ia dena instituzionalizatu
denean, dena araututa
dagoenean, eta epika eta
erromantizismoa galtzeaz
daudenean, zertarako?

Euskarak baduelako
oraindik arima sendotzeko
beharra, eta KORRIKA
oraindik pizgarri baliotsua
delako horretarako. Eta badu,
baita ere, bere alde ez
erromantikoa: ekonomikoa.

Eta ez ahaztu zazpi anai-
arrebak garesti eta familia
guztietan batzuek besteen
beharra izaten dutela. Begira
Iparraldera, begira Nafarroara,
eta ez ahaztu arerio
boteretsuak ere baditugula,
beren lege eta gorrotoarekin.

Prestatu zapatilak eta petoa!
Bete ditzagun Euskal Herriko
bide-bazterrak HITZEKIN! ■

N: GIZONEK GERRA EGIN, HAUR-EMAKUMEEK PAIRATU



"Mendebaldeko behar ez den lekuetan muturrik sartuko ez bagenu, ez litzateke halakorik gertatuko"

NEREA MACHADO ISH-KO BOLUNTARIOA ETA ZUMAIKO INSTITUTUKO IRAKASLEA

Zumaia ko Institutuan irakasle eta Itsas Salbamendu Humanitarioan boluntario. Gobernu kanpoko erakunde karanbola hutsez ezagutu zuen Nerea Machadok (Azpeitia, 1975), eta lan eskerga egin du ordutik. Besteak beste, Aita Mari ontziko tripulazioarentzako sukaldari eta finantziazio eta zabalpen arloetan. Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Mundu justuago bateranzko bidean, gizartearen "parte aktiboa" izatea gustuko du Machadok. 2015ean ezagutu zuen Itsas Salbamendu Humanitarioa, erakunde sortu zen urtean bertan, eta boluntario lanetan dabil ordutik. Errefuxiatuen krisiaz, Ukrainako inbasioaz nahiz eskuin muturraz aritu da *Baleikeri* emandako elkarrizketan.

2015ean sortu zen Itsas Salbamendu Humanitarioa, Aylan Kurdi haurraren gorpua argazkiak mundua zeharkatu ondoren. Noiz batu zinen zu?

Oso bitxia izan zen. Justu gabon haietan, 2015ekoetan, koinatuari lagun ezkutua egitea tokatu zitzaidan. Garai hartan arrantzan aritzen zen bera, eta horrekin lotutako zerbait oparitzea okurritu zitzaidan. Getarian irteera batzuk egiten zituzten ontzietan, kostatik urrundu eta itsaso zabalean arrantza egiteko. Ordurako, gainera, katekista nintzen, eta haurrekin zerbait ezberdina egiteko plan aproposa iruditu zitzaidan. Enpresa batera deitu nuen, eta esan zidaten arduraduna

kanpoan zegoela, misio humanitario batera joana zelako. Esan nien hori ere interesatzen zitzaidala. Orduan zabaldu zen Aylan Kurdiren argazkia, 2015eko irailean-edo, eta gu ere horrekin zerbait egitekotan ginen. Eta harri batez bi kolpe egin nituen. Koinatuaren oparia itxi nuen, eta lehenengo harremanak hasi nituen Itsas Salbamendu Humanitarioaren alde Azkoitian zerbait egiteko.

Urte hartako jaunartzeetan bildu zen dirua erakunde horri eman genion. 2016ko azaroan Azkoitian egiten den kooperazio azokan postua jarri zuen Itsas Salbamendu Humanitarioak bere merchandising-a saltzeko, eta pultsera batzuk ere jarri genituen salgai zenbait dendatan, jendeak erakunde berri hori sortu zela jakin zezan.

Ordutik zure boluntario jarduna herrian bertan garatu duzu, erakunde horren zabalpenean eta finantzaketan?

Hasieran, bai. 2018an zerbait potoloagoa martxan jartzea erabaki genuen. Azkoitian guraso talde bat elkartzen gara, denak gurasoak eta katekesi mundukoak, eta orduan erabaki genuen kontzertu handi bat antolatzea herrian, dirua lortzeko. Izaro abeslariarekin jarri ginen



Nerea Machado.

harremanetan, baiezkoa eman zigun, eta lortu genuen helburua. Herrian bertan sona eman genion hala ISHri.

Urte horretarako prest zegoen *Aita Mari* ontzia irteteko, baina ez zieten uzten. Pasaian zegoen geldirik. Kozinatzeko norbait behar zuten, eta esan nien prest nengoela. Orduan hasi nintzen erakundean pixka bat gehiago sartzen. Azaroan eta abenduan ibili nintzen tripulazioari jaten ematen. Paperak bazeuden, eta derrigorrez egon behar zen tripulazio profesionala bertan, edozein momentutan eman zezaketelako itsasoratze baimena.

Krisi pertsonal potolo bat suertatu zitzaidan, eta nire orduko bikotekidearengandik banandu egin nintzen. Etxekoandrea nintzen eta lana behar nuen, erakundekoek ezagutzen ninduten, eta esan zidaten lanaldi erdiz kontratatuko nindutela. Hiru urtez kudeaketa lanak egiten egon naiz: kontratuak aholkularitzakoekin lotu, erakunde publikoetan dirulaguntzak eskatu, horiek zuritu, fakturak eraman...

***Aita Mari* da ISHren lanaren alde ikusgarriena, baina proiektu gehiago baditu esku artean, ezta?**

Bi proiektu nagusi ditu, eta hirugarren bat bultzatu nahian dabil. Quios Grezian dagoen irla bat da; eta errefuxiatuen kanpaleku bat dago bertan. Hor hasi zuen bere ibilbidea ISHk: 2015ean joan zen Greziara lehenbizikoz. Migrazio mugimendu handi bat egon zen, eta jende asko iritsi zen hango kostaldera. Greziako Gobernuak erabakitzen zuen GKE bakoitzak zer egin zezakeen, eta guri aukera eman ziguten osasun sorospena eskaintzeko. Guk artatzen genituen iritsi berritan. Pandemia zabaldu zenetik, aldiz, Greziako Gobernua arduratzen da iritsi berrien sorospenez.

Pixkanaka, errefuxiatuen kanpalekuetako osasun sorospena ematen hasi ginen gero. Horretan ari gara oraindik ere. Ohartu ginen iristen diren horiengan jartzen ari ginela arreta, baina beste batzuk ez zirela iritsi ere egiten. Orduan sortu zen ontzien behar hori. Alemaniak batzuk, andaluziak batzuk eta gu geu hasi ginen proiektu horrekin. *Lifeline* ontzia hartu genuen orduan, eta misio batzuk egin.

ISHko kideak ohartu ziren euskal gizarteak izugarrizko babesa eskaini ziela, eta posible zela

erakundeak bere kasa proiektu hori gauzatzea. Gero *Aita Mari* izango zen barkua erosi zen 2018an. Ez zen, ordea, misiorik egiteko baimenik lortu 2019ra arte. Greziara gauza batzuk eramatera bakarrik joan ahal izan ziren; agonia izan zen itxaronaldia.

Hirugarrena sentsibilizazioa da. Arazoa jakitera emateko hainbat egitasmo egiten ditugu.

Eta baimenak lortu bezain laster, hilabete gutxira, COVID-19a.

Hori da. Horrek egundoko gatazka sortzen zigun: atera egin behar genuen, baina larria zen egoera. Herrialde guztiek neurriekin berdin jokatu zutela ikusi eta errazago hartu genuen erabakia, guztia gelditu zelako. Baina hasieran zaila izan zen. Oraindik ere zaila da neurri horiengatik bertara joan eta misioak behar bezala egitea.

Zergatik utzi dezake pertsona batek bere jatorrizko herria? Zein da errefuxiatuen krisi hau piztearen arrazoiak?

Mendebaldekoak behar ez zen lekuetan muturrik sartuko ez bagenu, ez litzateke halakorik gertatuko. Guk heroi ausart eta orojakile moduan esan diegu gauzak nola egin behar diren, eta, gainera, atzean beti egon da interes ekonomiko bat: gasa, petrolioak, diamanteak... Herrialde indartsuenek gainerakoak beraiei dantzan ibiltzea nahi izan dute, birrindu egin dituzte zenbait herrialdetako egiturak, eta beren herrialdearen defentsan hasi diren lekuetan gerrak sortu dira.

Gatazka horietan jendeak ikusi du ihes egiteko aukera badagoela, idealizatuta daukatelako Europa. Ikasleei esaten diet: gaur egun denok daukagu sakelakoa eta estaldura; badakigu besteak nola dauden. Baina alde ona baino ez dugu ikusten. Interneten Maldivak bilatuz gero, ez zaigu aterako eskasia non dagoen. Beraiek berdin. Nora joan nahiko dute, ba?

Zergatik etorri zen nire aita Zamoratik hona 1960ko hamarkadan? Zamoran ez zelako hemen bezain ondo bizi. Denok egingo genuke hori. Denok saiaturiko ginachte geure buruarentzat onena bilatzen. Uste dute Europa beraiek daukatena baino hobea dela, eta horregatik datoz.

Nahiago dute Europara bidean topatuko dituzten oztopo horiek guztiak pasatu, han geratu baino. Ni neu ama izanda, askotan pentsatzen dut nola jar dezakeen ama batek arriskuan bere semea edo alaba horrela. Zer ari ote dira pasatzen. Hona etortzen direnean, gainera, kartzela batetik igaro behar dute, paperik ez daukatelako.

Zer egin beharko lukete agintariak?

Europak hartutako neurrietako bat da Turkiari dirua ematea –eta gure dirua da– Turkian errefuxiatuen kanpaleku izugarri bat edukitzeko. "Zubi hartatik harantz" mantentzeko guztiak. Turkiak gainezka egiten duenean, Turkiak atea zabaltzen du, eta han dauden errefuxiatuek Greziarako bidea hartzen dute. Aldian behin gertatzen da. Nazio guztiek beren zilborrari begiratu beharko liekete, baina norbere zilborrari, beraiei dagokiena soilik egiteko; nahikoa dauka bakoitzak berearekin.

Jendeak askatasuna izan behar luke munduan zehar ibiltzeko. Mundua, natura, guztiona da. Zergatik daukat nik askatasuna Alemaniara joateko eta senegaldar batek direnak eta ez direnak egin behar ditu hona heltzeko? Hemen lana falta denean, jendea falta denean? Migrazio politikak gaizki egindako politikak dira. Barruan dagoena babestu nahi izaten da, baina kontuan hartu gabe geu ere irtendakoak garela. Barruan daukagunarekin bakarrik ezin dugu. Azken finean, hor nazioarteko borroka eta geopolitika nahasten dira. Interes ekonomikoa alde guztietatik.

Ukrainara begira gaude orain, eta ahaztu gara Mediterraneoaz.

Beti gertatzen da. La Palma, zer da hori? Nazkatu gara Cumbre Vieja entzuteaz. Lehengoan harritu ninduen La Palmako iragarki turistiko batek. Pentsatu nuen gu ahaztu garela, baina haiek ari direla buelta eman nahian. Niri tokatzen zaidan aldetik, ISHko kide izanda, pena ematen dit ikusteak jendea nola ari den Ukrainagatik mobilizatzen zoro moduan, prest Ukrainara joateko jendea ekartzeko... Inori ez zaio bururatu Italiara joatea? Italiarren lekuan, haserre nengo.

Espainia berdin. Saharaz hegoaldekoak iristen dira Kanarietara, eta horretan badauka sekulako papera. Gehiago entzuten da Mediterraneo, hango mugimenduak handiagoak direlako. Baina herrietan ere ikus daiteke. Azkoitian saharar mordoa dago, eta ez daukate aukerarik paperak lortzeko. Kontratua egiteko erroldatuta egotea eskatzen diete, eta erroldatzen ez diete uzten gero. Ukraina salbatzera goaz, munduko onenak gara, eta herrian dauzkagunak? Ez diegu begiratu ere egiten. Kanpokoak badaude eta herritarrek ere bai. Ez dira ausartzen beraiei egoera zein den esatera denok ezagutzen dugulako elkar. Egin behar da Ukrainakoa, baina galduta sentitzen zara. Ematen du gainerakoak desagertu egin direla. Oso agerikoa da.



Nerea Machado eta Joseba Perez de Arriba.

**"HERRIALDE INDARTSUENEG
GAINERAKOAK BERAIEAN DANTZAN
IBILTZEA NAHI IZAN DUTE"**

**"KOLOREA DA DESBERDINTASUNA?
ERLIJIOA? PERTSONA HITZA KENDU
ETA KATALOGATU EGITEN DITUGU?"**

**"GEZURRA DA AURRERAPAUSSOAK
EMATEN ARI GARELA, JENDE ASKO
DAGO BERDINTASUNAREN AURKA"**

Lehenengo eta bigarren mailako etorkinak daude...

Hori da. Kolorea da desberdintasuna? Erlijioa? Pertsona hitza kendu eta katalogatu egiten ditugu? Hori oso gogorra egiten zait, ez dut ulertzen gizakiak nola eduki dezakeen halako gizatasun falta. Azken finean, gizatasun falta da. **Erakundeek zer egin dezakete etorkin bati harrera integrala eta duina eskaintzeko?**

Herri batzuk badaude beharrezko harrera eskaintzen dutenak. Asko borrokatzen da Eusko Jaurlaritza nolabait ere horiek lotu eta halako korridoreak sortzeko. Niri iruditzen zait burokraziak irabazten duela zentzuaren aurrean. Eta zentzua askoz ere sinpleagoa da burokrazia baino. Hona etortzen denarentzat, udaletxera joaten denean, aurrean topatzen duen burokraziak ez dauka zentzurik. Guretzat ere gure zentzutik kanpo dago paper pilo hori eskatzea. Lan bat izateko aukera edukitzeko erroldatu ahal izatea besterik ez dute eskatzen.

Ezin dute esan hemengoak direnik, ez daukate lekurik. Eta denok daukagu sentimendua gure aberriarekiko. Mendebalदारok lur jota egongo ginatke haien lekuan, eta gu haiei ateak ixten ari gara. Jendeak esaten du lapurtzera eta dirulaguntzen kontura bizitzera datozela. Diru hori denona da, eta baldintzak betetzen dituztenek jaso ditzakete. Etorkinei ez dizkiete ematen emateagatik, haiek ere baldintzak bete behar izaten dituzte. Zenbat jende dago langabezia kobratzen eta beltzean lanean? Etorkinak hor beheragotik datozelako inozoak dira, ala? Ez, hemen egiten duguna ikusi eta gauza bera egiten dute, besterik ez.

Goranzko joera du eskuin muturrak Europako zenbait herrialdetan, Espainian, kasu.

Bai, eta joera horrek kezkatu egiten nau. Gaztela eta Leongo hauteskundeetan, esaterako, Vox izan da hirugarren indarra. Harrigarria egiten zait oraindik, gaur egun, jendeak sineskera batzuk edukitzea. Hemendik beherako jende asko eskuinekoa da tradizioz. Nire ustez, gainera, eskuin mutur hori ezkutuan egon da, eta Abascal [Santiago Abascal, Vox alderdiko burua] diskurtsoa zen behar zutena. Badirudi egundoko aurrerapausoak ematen ari garela, berdintasunean adibidez, baina gezurra da. Jende asko dago "denok berdinak izan behar dugu" ustearen aurka. Batek hori publikoki esan orduko jendea errebelatzen ari da, eta beste herrialde batzuetan gertatu bezala, indarra hartuko du besteok ez bagara elkartzeko kapazak.

ISHn boluntario eta Zumaiaiko Institutuan irakasle. Datozen hilabeteetan ere berdin jarraituko duzu?

Bai. Nire boluntario lanak beti jarraituko du Itsas Salbamendu Humanitarioan edo suertatzen den lekuan. Denok gara gizartearen parte, eta niri,

behintzat, gustatzen zait parte aktiboa izatea. Quioseko proiektuak hor jarraitzen du, eta, gainera, zortzigarren misioa daukagu aurreikusita apirilera. Betiko erritmo horri eutsi nahian ari gara.

Azken misioa, lehen pertsona

JOSEBA PEREZ DE ARRIBA MEDIKUA

Zazpi urtez aritu da Perez de Arriba Zumaian mediku. Ofiziotik erretiroa hartua da; ez, ordea, zereginetatik. Medikua aritzeko baimena badu Medikua Elkargoaren aldetik, eta *Aita Mari* ontziak Mediterraneora egin duen azken misioan izan da, urte honetako urtarilean eta otsailean.

"Berria egunkarian ikusi nuen medikua behar zutela, eta ni libre nengoen. Itsasoa ere gustatzen zait", du. Egun batetik bestera hartu zuen erabakia, eta hiru egunera iritsi zen Burrianara (Castelló, Herrialde Katalanak). Portu hori erreferentzia da Mediterraneoko erreskateetan parte hartzen duten gobernu kanpoko erakundeentz, batik bat, horien konponketa eta mantentze lanetarako elkarteak sortu dutelako bertako bizilagunek. Portu horretan amarratuta zegoen, *Aita Mari* erekin batera, Open Arms GKEren ontzia ere.

"Espektatibarik gabe" joan zen: "Badakit zer den sorospena, eta gutxi gorabehera izaskun Arriaran ISHko kideak kontaktatu zidan aurrez. Bera ere joan zen misiora; bera erizaina da, eta esperientzia handia du".

Libia eta Malta inguruko itsasora egin zuten misioa, eta bidean gurutzatu zuten Banksy artistak finantzatzen duen



Lousie Michel erreskate ontzia. Lehen gauean, 22:00ak aldera, jaso zuten migranteen ihesaldi baten abisua. "Posizioa hartu eta gerturatu egin ginen. Hasieran, lehen begiratuan, 80 bat lagun zeudela pentsatu nuen. Oker nenbilen; 280 ziren", azaldu du medikuak. Italiak erreskatea ez egiteko agindu zien, *Aita Mari* ontziaren edukiera askoz ere txikiagoa delako, baina ontzi gehiago gerturatu ziren migranteak jasotzera.

Osasun langileen egitekoa zen, hasteko eta behin, jendea identifikatzea: "Pultsera bat jartzen genien zenbaki batekin, eta erreferentzia horrekin apuntatzen genituen adina, sexua eta triajea esaten dioguna; sorospena behar duen edo ez zehazten du triajeak, eta behar den kasuetan, zer nolakoa izan behar den". Medikuek azaldu du kasu larrienak artatzen dituztela lehendabizi.

Erreskatean migranteak artatu ondoren, COVID-19a detektatzeko testak egin behar izan zituzten, eta beste banaketa bat egin horren arabera.

Bigarren erreskatea handik bi egunera egin zuten. "Beraien txaluparekiko perpendikular jartzen genuen geurea, bestela, denak batera sartu eta irauli egin zitekeelako", dio. Lehenengo txalekoak banatzen dituzte, medikuaren arabera, beraiek eramaten dituztenak ez direlako kalitatezkoak. "Edu izeneko senegaldarra joan zen gurekin ontzian, eta bera zen migranteekin lehen kontaktua egiten zuena", dio.

Lampedusatik (Italia) hegoaldera 40 miliatara egin zuten erreskate hori. Egun berean heldu zioten hirurgarrenari: "Eguerdian beste txalupa bat topatu genuen. Gu ikusi orduko bota zituzten itsasora beren flotagailuak. Txalupa horretan 70 gizonezko eta emakumezko bat zetozen".

Handik portuan sartzeko baimena eskatu zuten, baina zain egon behar izan zuten bi egun. "Behintzat, gau ona pasatu genuen. Itsasoa mugituta zegoen, eta jende asko geunden barruan", dio. Eguraldi txarra zetoze eta eman zieten porturatzeko baimena, eta Oscar Fernandezek, ontziko kapitainak, berria jakinarazi orduko txaloz eta oihuka ospatu zuten lurreratzea. ■

Geologoa artaldearen gidari

Geologian lizentziatua, institutuko irakaslea eta artzaina. Hirurak pertsona berean. Josu Aizpuruak (Zumaia, 1971) betetzen ditu hiru baldintza hauek: geologia eta biologia ikasgaiak irakasten dizkie DBHko ikasleei Trintxerpen, eta, aldi berean, artalde bat du Zumaian, San Martin baserrian.

Sekula baino azkarrago doan mundu globalizatu eta hiperteknologiko honetan, artzain izatea beste garai bateko lanbidea bezala ikus daiteke; belaunaldiz belaunaldi, gurasoengandik seme-alabengana pasatzen den lanbidea ez bada, zerbait anakronikoa bezala ikus daiteke artzain nahi izatea. Badago, ordea, artzain izatea aukeratzen duen jendea ere. Norabide jakinik gabe doan mundu honetan stop botoiari eman, eta lanbide hori ikasi eta praktikara eramatea aukeratzen dute. Josu Aizpuruak da horietako bat. Berrogei bat ardiko artaldea bildu du azken urteotan San Martin baserrian. Oraindik ere irakaskuntza munduan jarraitzeko asmoa du, baina denbora eta pasioa ardiei eskaintzen dizkie.

Baina nola bilakatzen da irakasle bat artzain? Natur zientziak betidanik gustatu izan zaizkiola esan du Aizpuruak, baserriko sukaldean egindako elkarrizketan. "Natur zientziaren arloan gehiago erakarri naute animaliek eta landareek", azaldu du, baserri bertako sagarrekin ekoiztutako sagardo botila argazkilariarekin eta kazetariarekin partekatzen duen bitartean. Intxaurrak ere ez dira falta berriketa saioan. Elkarrizketako une batean osaba Joxe Manuel sartu da sukaldean; harentzat ere mokadu bat jateko unea heldu da.

Testua: **Juan Luis Romatet.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio**
Aprea.



Ezkerreko argazkian, ardiak harria miazten, gatza lortzeko.

Erdikoan eta eskuinekoan, ardien esnea biltzeko lanetan.

Mundu mailako interesgune bihurtu da Zumaia geologoentzat. Makina bat zientzialari etorri da Zumaiara azken hamarkadetan, baina aurretik ere, Aizpurua txikia zenean, "tipo arraroak" etortzen zirela du gogoan. "Hor ibiltzen ziren harriak begiratzen eta neurketak egiten. Algorrin ikusten nituen, Elorriaga azpian ere ibiltzen ziren, mailuekin eta brujulekin. Tipo arraro haiek kuriositate pixka bat piztu zidaten. Gero jakin nuen geologia zertaz zihoan, eta zerbait ikasteko gogoia izan nuenean, geologia aukeratu nuen. Aitziber arrebak Biologia aukeratu zuen, eta nik Geologia". Unibertsitateko ikasketak hasi aurretik, bi urtez, Lanbide Heziketa ere ikasi zuela kontatu du.

Geologia karrera amaitu bai, baina geologo lanetan ez dela aritu zehaztu du. "Karrera bukatzen duzunean pixka bat noraezean ibiltzen zara. Agian, nik ez nuen abildade hori izan garai hartan inon muturra sartzeko. Ingurugiro teknikari kurtso bat ere egin nuen urte batean, baina geologo ardurak hor geratu ziren. Hala ere, ikaslagunek eta irakasleek egiten dutena jarraitzen dut. Interesa beti izan dut, baina mundu horretan aktibo egoteko inplikazio handiagoa behar da, eta bizitzak, azkenean, beste leku batzuetara eramaten zaitu".

Ikasketak amaituta, eta Lanbide Heziketako tituluaz baliatuta, Egurko enpresan aritu zen lanean. "Hiru bat urte egin nituen, eta oroitzapen onak ditut". Garai hartan bertan irakaskuntzan lan egiteko interesa ere izan zuen. "Zerrendetan apuntatu nintzen, eta hasieran Lanbide Heziketako irakasle egin nuen lan, tailerreko gaiak-eta erakusten. Baina gero, Geologia ikasi nuenez, biologia-geologiako klaseak emateko apuntatu nintzen. Institutu denetan ematen da, eta klaseak emateko aukera sortu zitzaidan. Ordezkapenak egiten ibili naiz ordutik". 2000. urtetik dabil irakasle, eta "energia asko" behar dela aitortu du: "Ikasleekin energia pila bat gastatzen da, eta ez da erraza". Gaur egun Txintxerpen (Gipuzkoa) egiten du lan, DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleekin.

Tartean, irakasle zebilela, urtebeteko eszedentzia hartu zuen artzain ikasketak egiteko Arantzazuko Artzain Eskolan. Natur



zientziak eta ekologia betidanik interesatu zaizkiola esan du, izan ere, Aizpuruak. "Horren barruan badaude lurraldea kudeatzeko era desberdinak: oso intentsiboak izan daitezke batzuk, hemen inguruko esne behiekin gertatzen den bezala, kasik industrialak dena; edo, askatasun handiagoa ematen dutenak, eta lurra hainbeste kaltetzen ez dutenak. Ardiak dira horiek; ardiek aukera handiak ematen dituzte: udan mendira eraman ditzakezu, adibidez; ez da baserriaren ondoan kokatutako jarduera bat". Animalia bezala ere manipulatzeko errazagoa dela uste du Aizpuruak. Topikotik aldenduta –ardi denak berdinak dira eta haien antzera portatzen gara gizaki batzuk ere–, ardi bakoitzak bere izaera duela uste du Aizpuruak. "Animaliekin asko egoten bazara, haiek ere badakite nolakoa zaren, eta zuk ere bai animalia bakoitza nolakoa den. Badirudi klonak direla, denak berdinak direla, baina bakoitzak bere izaera du. Badira elkarrekin egon ezin duten ardiak, haserre egoten direnak, kasurik egiten ez dutenak..., denetik dago, gizakiokin gertatzen den bezala".

Artalde San Martin baserrian

San Martin baserrian makina bat denbora pasatutakoa da Josu Aizpuruak. "Baserria familiakoa da, eta hemen txiki-txikitatik ibili naiz. Aitak ekartzen gintuen hona. Hasieran ez genuen ezer egiten; jolasean ibiltzen ginen, baina gerora lagundu behar izaten genuen. Laguntzera beti etorri gara hona. Orain lauzpabost urte osabari galdetu nion ea ardi batzuk ekartzetik izango nuen; baimena eman zidan, eta halaxe hasi nintzen. Orain 39 ardi eta ahari bat ditut –arkumeak ez ditut kontatzen–. Gaur egun hainbesterako lekua daukat hemen".

Artalde bat izateak lana dakar, eta ia egunero igotzen da Aizpuruak baserrira animaliak zaintzera. "Ardiek beraien zikloa izaten dute. Arkumea urtean behin izaten dute, eta jaiotzen direnetik sei hilabetea egoten dira esnea ematen. Denbora horretan, egunero etorri behar da". Elkarriketa egin zen garaian, ardiak erditzen ari ziren. Egun hartan bertan, 06:00etan igo zen baserrira, ardi bat

**"ORAIN LAUZPABOST
URTE OSABARI
GALDETU NION EA ARDI
BATZUK EKARTZERIK
IZANGO NUEN"**

**"ARDIEKIN
SEGITZEKO ASMOA
BADUT, BAINA NOLA,
HORI BESTE GAUZA
BAT DA"**



Josu Aizpurua goizaldean jaiotako bi arkumerekin.

umetzen ari zelako. "Ukuiluan kamera bat dut eta sakelakoaren bitartez ikusi dut erditzen ari zela". Arkume bakarra ez, bi izan zituen ardi hark, bikiak. Jaio eta hamabi ordura tente-tente zeuden bi arkumeak amaren alboan, bisitariei begira. Egun gutxira dozena bat arkume jaioberri zituen Aizpuruak San Martinen. "Orain bi aldiz etortzen naiz; lo egitera barrura sartzen ditut, eta jateko ere ematen diet. Gero, begiratu behar da ea arkumeek esnea ondo hartzen duten. Hori ere mundu bat da; batzuek ez dute lehenengoan esnea hartzen. Bikiak direnean, agian amak bakarrari emango dio esnea, eta beste arkumea arbuia egingo du. Orduan, ardia eutsi behar duzu arkume horrek esnea har dezan. Badaude arkumea onartzen ez duten ardiak ere. Niri, zorionez, ez zait halakorik gertatu".

Lehen hilabete horietan ardia jetzi beharrik ez dagola kontatu du Aizpuruak, arkumeek hartzen dutelako esne guztia. Amarekin bi hilabete eta erdiz edo hiru

hilabetez edukitzen dituela dio. Gero, banaketa egiten du: emeak hazteko gordetzen ditu, eta arrak hiltegia eramaten ditu, jateko. Hilabete horien ondoren, esnea gazta edo mamia egiteko erabiltzen ditu.

Orain bi urte hasi zen zumaiarra gazta egiten. Lehen txanda hartan hamasei gazta egin zituen, "eta denak onak atera ziren. Egunero zazpi bat litro esne biltzen nituen, eta bi egunetik behin gazta bat egiten nuen". Baserrian hutsik zegoen gela bat erabili zuen horretarako. "Hozkailu zahar bat bazegoen, eta ondo kontserbatu ziren han. Kameran hezetasuna eta tenperatura egonkorra mantentzen baduzu, prozesua bakarrik egiten da. Azken finean, gaztak behar duena tenperatura egonkorra da. Gazta bizirik dagoen zerbait da, denborarekin aldatzen joaten dena". Ekoiztutako hamasei gazta haiek familian eta lagun artean banatu zituen. "Ezin dituzu edozer eratarik saldu, osasun neurriak gorde behar dira", azaldu du. Lan hori egin izanak asebate egin zuela ere gaineratu du.

Iaz, ordea, ez zuen gaztarik egin, "lan handia delako. Bestela ere nahikoa lan nuen; arrebari galdetu nion ea lagunduko zidan, eta hark ere lan dezente zuenez, ez genuen egin. Ardi esnea izoztu egin



nuen, eta mamia egiteko erabili. Familia mamia jan eta mamia jan aritu zen". Aurten gaztarik egingo ote duen galdetuta, zalantza du; gogoia bai, baina lan handia denez...

San Martinera egindako bigarren bisitan, jezle batekin ari zen esnea biltzen, printzipioz, izozteko. Bost bat litro bildu ditu oraingoan; marmita batean sartu, eta hozkailura eraman du berehala. Makina, berriz, lau aldiz garbitu du: bitan ur hotzarekin, eta beste bi ur beroarekin eta xaboi pixka batekin. Esnea biltzen duen bakoitzean garbitu behar da makina, hodian barruan geratzen den esne apurra ez lehortzeko.

Irakasle edo artzain?

Etorkizunera begira, ez du irakaskuntza utzi eta artzaintzari eguneko 24 orduak emateko asmorik. "Buruan gauza asko ditut; ardiekin segitzeko asmoa badut, baina nola, hori beste gauza bat da. Irakaskuntza uztea ez dut planteatu ere egiten, hileroko nomina galduko nuke-eta. Bestela, diru hori nola osatuko dut? Ardiek ez dute dirurik ematen. Irakaskuntzan, lekuaren arabera, gustura ibiltzen naiz, eta azken bi urteotan lanaldi erdian aritu naiz. Horri esker zaindu ditut ardiak. Irakaskuntza utzi eta artzaintzara dedikatzea apustu fuertea izango litzateke. Agian jubilatuta gero hasiko naiz zerbait egiten. Orain muturra sartzen ari naiz, baina pixkanaka-pixkanaka".

Eguzkia ezkutatzen ari da, eta hego haizeak gogor jotzen du. Ardiak ukuiluan gordeta daude, eta txakurrak inguruan bueltaka, laztanen zain. Sagardo pixka bat bat edan, eta berriro lanera, beti dago eta zer egina baserri batean. ■■■

Artaldea eramaten zelaitik baserrira.

Patua eta Agedita

Angel Olabarria, zapataria

Angel Olabarria (Azpeitia, 1962) oinetako, zola eta mailu artean ibiltzen zen txikitan, Azpeitiko gurasoen dendan, oinetako konpontzaileak zirelako haiek. Hainbat hamarkada geroago, ofizioa bere egin du halaberharrez, eta argazkigintzarako afizioarekin partekatzen du.

Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

A lde Zaharrean oinetakoak konpontzeko denda dauka Angel Olabarriak (Azpeitia, 1962) duela zortzi urtetik. "Ez dakit patua izan den edo nola deitu, 53 urterekin ekin diodalako gurasoen lanbideari", kontatu du Olabarriak. Orain urte batzuk esan izan baliote ez zukeen sinetsiko, baina Marcial Ucin lantegia itxi eta kalean gelditu zenean, 360 graduko aldaketa eman behar izan zion bere karrera profesionalari. "Azpeitian, Elizkalean zeukaten oinetakoak konpontzeko denda gurasoek, eta oinetakoak saldu ere egiten zituzten. Txikitan, baita gaztetan ere, aritzen nintzen haiei laguntzen, eta, horregatik, ordurako banekizkien ofizio honetako zenbait kontu".

Agedita dendaren -izen hori jarri zion gurasoen denda ere halaxe deitzen zelako- historia hasieratik kontatzeko, esan bezala, zortzi urte egin behar dira atzera. "Langabezian gelditu nintzenean, saiatu nintzen orduko lanbidearekin lotutako lanen bat aurkitzen. Marketin saileko saltzailea izan nintzen urte askoz, eta banituen harremanak hornitzaileekin eta. Baina 53 urterekin ez da erraza lan merkatuan sartzea, eta

egin zizkidaten eskaintzak ez ziren erakargarriak. Denboraldi bat langabezian pasatu ondoren bururatu zitzaidan gurasoen ofizioari heltzea", azaldu du.

Hala, hiru hilabetez ikasten aritu zen zapata konpontzaile batekin, eta Zumaiako Alde Zaharrean ixtear ziren denda hartu zuen. "Nik ez nuen hutsetik ireki nahi denda, ez nuelako inbertsio handirik egin nahi. Ofizio honek ez du dirurik ematen, eta jada martxan zegoen negozioa hartzea erabaki nuen". Zunbillo kalean, udaletxearen eta Sasiain harategiaren artean dauka lokala, eta hantxe pasatzen du eguna, goizetik iluntzera, astelehenetik ostiralera. "Gustukoa dut lana, eta, gainera, eguerdiko tarte zabalak aukera ematen dit argazkiak ateratzera joateko edo irakurtzeko. Baina argi nuen asteburuetan ez nuela lanik egingo". Izan ere, gogoan du txikitan larunbatak gurasoen dendan igarotzen zituela. "Gurasoek igandeak bakarrik izaten zituzten gurekin gozatzeko. Lana gogotik eginda atera zuten familia aurrera", gogoratu du. "Orduan ere ofizio honek ez zuen nahikoa diru ematen, eta aitak bi lan zituen. Eguna tailerrean igarotzen zuen, eta 18:00etatik 23:00etara aritzen zen oinetakoak konpontzen", esan du azpeitiarrak.



irrimarra




Olabarria amarekin, denda zabaldu zuen egunean.

Ofizioa gustuko du, ez hainbeste, ordea, baldintzak eta dendaren kokalekua. Batetik, ez du soldata ateratzen Agedita dendarekin. "Gizarte Segurantzak, alokairua eta bestelako gastuekin hilero 1.000 eurotik gora ordaindu behar ditut, eta pentsa zenbat oinetako konpondu beharko liratekeen gastuak kendu eta soldata izateko". Herriko dendariak Interneteko saltokiez dira kexu, eta berari, ez diote onik egiten ez bata, ez besteak. "Ulertzen ditut herriko saltzaileak Internetez kexatzen direnean. Baina beraiei ere esaten diet urte osoan beherapenak eskaintzen dituztela, eta oinetako bat 25 euroan saltzen badute, nire negoziarako ez dela ona hori. Izan ere, nik materiala erosi, lanorduak sartu eta zenbatean konpondu behar diot bezeroari oinetakoa, berria erostea aukeratu ez dezan?". Hala, aitortu du batzuetan beldurrez esaten diola bezeroari zenbat kostatu den konponketa. "Batzuek ulertzen dute, badakite atzetik zer lan dagoen, baina beldurrez ibiltzen naiz".

Bestetik, Alde Zaharra gero eta hilago dagoela uste du, eta herritarrei gero eta gehiago kostatzen zaiela bertaratzea. "Orain gutxi itxi dituzte hiruzpalau denda. Eskerrak udaletxea hemen goian dagoen, eta katekesia ere elizan egiten den eta gurasoen joan-etorria eta izaten den", esan du.

Ez dauka bezero mota zehatzik, baina azaldu du adineko herritarrek ohitura gehiago dutela oinetakoak konpontzeko. "Dena den, nik nabaritzen dut Azpeitia aldean joera gehiago dagoela horrelako zerbitzuak erabiltzeko kostaldean baino", iritzi dio. Sasoiari dagokionez, negua izan ohi da lan gehien edukitzen duen garaia. "Eguraldi txarrarekin etortzen da jendea zola aldatzera, zulatuta ura sartzen delako edo gastatuta dagoelako".



Olabarriaren gurasoak, 1996an, bere semearekin Azpeitiko dendan. ANGEL OLABARRIA

Alpargatak eta 'souvenir'-ak ere bai

Kontuak kontu, Olabarriak asmatzen du jendea dendaraino erakartzen, bai, behintzat, bisitariak. "Sanjuanituriraino iristen dira bisitariak, hortik ez dira pasatzen. Hortaz, nik denda aurrera ateratzen dut souvenir-en panela, eta hori ikusten dutenean, igo egiten dira honaino", esan du irribarre txikiarekin. Oinetakoak konpontzeaz gain, izan ere, saltzen baititu poltsak, katiluak, hozkailurako imanezko eranskailuak eta halakoak. Denak, noski, Zumaiarekin erlazionatuta. Berak egindako argazkiak oinarri hartuta enkargatzen ditu serigrafiak eta bestelakoak, hainbat euskarritan erabiltzeko.

Salgai dituen produktu guztietatik, berezietakoak hozkailurako eranskailuak dira, egurrezkoak eta erliebedunak. Flyscha eta San Telmo ermita ageri dira batzuetan, Sanjuaniturri beste batzuetan... "Lizarran (Nafarroa) ikusi nituen behin antzeko eranskailuak, eta hango liburu denda bateko jabearen bitartez jarri nintzen harremanetan lan horiek egiten

Angel Olabarria

- **Adina:** 60 urte.
- **Ikasketak:** BUPeko bigarren maila.
- **Lanbidea:** oinetako konpontzailea.
- **Oinetako konpontzailea ez banintz...** erosketak saileko aurreko lana.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** argazkiak atera, mendira joan eta pasiera egin.

dituztenekin. Berezia iruditu zitzaidan, eta Zumaiara ekartzeko modukoa", azaldu du.

Jenero ohikoagoa ere badu salgai dendan, orde: alpagatak. Kolore eta tamaina askotakoak ditu, baina esan du horien salmenta ere beherantz doala pixkanaka.

Afizioa ere Zumaiartuz

Agedita dendan atenzioa ematen duen beste elementu bat eskuinaldeko horman zintzilik dagoen irudia da. Plano hurbileko argazkia da, eta bertan bikote bat ageri da, gizonazkoa behera begira eta emakumezkoa gizonari eztiki begira. Irribarretsu biak. Tamaina handiko argazkia da, Olabarraiki egindakoa Bartzelonan orain urte batzuk, eta Azpeitiko argazkizale elkartearen urteroko erakusketan ikusgai egondakoa.

"Emazteak esan zidan dendarako egokiagoa zela Zumaiarekin zerikusia zuen irudiren bat, baina hau jada formatu egokian neukanez, aprobetxatzea okurritu zitzaidan", azaldu du.

Denda duenetik, gainera, keinu bat baino gehiago egin dio Zumaiari. Izan ere, hainbat

irudi bilduma ditu argitaratuta, eta azken bi bildumetan toki nabarmena hartu dute Zumaiako paisaiak, kaleek nahiz herritarrek. Izena ere, *Zumaia* jarri die bildumei. "Orain arte neuretzat argitaratu izan ditut, etxerako, ale bat edo bi. Baina azken bilduma hauen kopiak eskatzen hasi zitzaidan bat edo beste, eta azkenean dozena bat argitaratu ditut", kontatu du. Zuri-beltzeko nahiz koloretako argazkiak dira. Horietako batean Balenciaga arrandegiko Igone Balentziaga arrain saltzailea ageri da amarekin –*BALEIKE*ren aurreko zenbakiko *Erretratua* ataleko protagonista izan da Balentziaga–, zuri-beltzean; beste batean, flyscha ilusentiko kolore biziak; itsasadarra goitik ikusita; ontziola, etab.

Ondoko harategikoak ere hartu dizkio argazki batzuk pendrivean, baskula berrian erabiltzeko. Eta horrela igarotzen ditu astegunak, orain oinetakoa konpondu, orain argazkia egin eta norbaiti erakutsi. Afizioa uztartuz gurasoengandik jasotako ofizioarekin. ■■■




Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali apirilaren 22a baino lehen.

Saria: TIPITAKin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Martxoko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkatuta zegoen asmatu behar zen: 14. orrialdean zegoen ezkatuta, eta **Naiara Anzizar** bazkidea izan da irabazlea.




WEBGUNEAREKIN LAGUNTZEA NAHI?



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK

GUKA



**HAZTEN ARI
DEN BAILARA**



Euskararen plaza gara,
herriaren irudia eta
komunitatearen ahotza



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

ZAHARTZEN ARI GARA



ANARTZ IZAGIRRE

Azaroan jakin genuen Azpeitian adinekoentzako eta mendekotasuna duten herritarrentzako egoitza berria egingo dutela, behinola eskola bat izan zen eta egun Juan Anxtieta musika eskola eta Udal Euskaltea dauden esparruan. Zeharo metaforikoa iruditu zitzaidan aldaketa. Dozenaka umeren eta gaztetxoren hezileku izan diren eraikinen lekuan, helduen zaintzarako gunea egongo da laster. Zergatik? Beharra dagoelako.

Ez da gauza berria biztanleria zahartzen ari dela, eta Urola Kosta ere ez da salbuespena adin piramidearen itxuraldaketa horretan. *Baby boom* garaiko umeek urdinduta dituzte dagoeneko buruko ileak, eta guraso izateko adinean dauden gazteek ez dituzte haurrak izateko beharrezkoak diren lan baldintza duinak eta kontziliaziorako aukerak. Eta gizartea aldatzen doan heinean, aldatu egin da amatasunaren eta aitatasunaren inguruko kontzeptua ere.

Deigarria egin zitzaidan Marta Luxan soziologoak aipatu

zidan kontzeptu bat: iraultza erreproduktiboa. Bizi itxaropena goraka doa, eta egun jaiotzen diren haurrek beren arbasoek baino bizitza luzeagoa izango dute oro har. Horrek dakarrena da, besteak beste, jaiotza tasa altua izatea ez dela lehen bezain beharrezkoa populazioa mantentzeko. Eta horrek, nola ez, errotiko aldaketa politikoak, ekonomikoak eta sozialak dakartza gizartearen.

Nire galdera da: kontziente ote gara biztanleriaren zahartzeak ekar dezakeenaz? Edo zein gai mahaigainera ateratzen dugunean gazteak jartzen ditugu jomugan, horiek di-relako, askoren esanetan, "etorkizuneko herritarrak". Zenbat aldiz entzun ote ditugu herriko eragileen edo instituzioen agerraldietan "gazteak dira etorkizuna", "gazteek ez dute parte hartzen" edo halako esaldiak. Zalantza daukat ez ote garen ari gazteei, hau da, gure gizartearen zati txiki bati, gehiegizko gainkarga ezartzen, eta, era berean, gizartearen zati handi bilakatzen ari den helduekin ahazten.

1990eko hamarkadan jaio nintzen, eta 30 urte beteak ez dituen azken *millennial* horien zakuan sartzen naiz neu ere. Lagun artean sarritan esan ohi ditugu "zahartzen ari gara, e" eta antzerakoak; urtebetze festetan dagoeneko ez ditugu gure urteak txaloka kontatzen, garai batean ikastolan egiten genuen lez. Zahartzen ari gara, bai, baina gizarte honetan gaztetzen ari den norbait baldin badago, azal diezagula zein den sekretua.

"Etorkizuneko herritar" moduan iruditzen zait pentsatu egin beharko genukeela zer-nolako politikak sortu nahi ditugun egungo erronkei aurre egiteko. Edo agian kontzeptua bera da aldatu behar duguna. Etorkizuneko herritarrengan nahiz etor daitezkeen jaioberrien kopuru hain desiragarri-bezain-utopikoe-tan ezarri beharrean begirada, orainaldiko herritarren beharrak asetzen xahutu beharko genuke indarra, 0 urtetik ehundaka urte dituzten herritarrengan, alegia. *Tempus fugit*; denbora ihesi doa, eta ordulariak gurpildun aulki itxura du. ■

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta

Tirada: 7.750 ale



Enpresa laguntzaileak:





BIZTANLERIA GORA, ADINA ERE BAI

Gero eta jende gehiago bizi da Urola Kostan, eta iazko datuen arabera, gero eta gertuago du 80.000 biztanleko langa. Bestalde, biztanleria zaharragoa da eskualdean, jaiotza tasa beheraka ari da, eta horrek zein bestelako hainbat faktorek bailarako demografia aldatzea ekarri dute. Eskualdeko populazioaren erradiografia errotik aldatu da, baita erronkak ere.

Testua: **Anartz Izagirre.**


Argazkiak: **Anartz**

Izagirre eta utzitakoak.

Tamaina, itxura, estilo eta ezaugarri desberdinak dituzten 11 herrik osatzen dute Urola Kosta eskualdea, eta haren barruan, bi azpi eskualde bereizten dira; barrualdea edo Urola Erdia deiturikoa, eta kostaldeko herriak edo Urola Kosta bezala ezagutzen dena. Horixe litzateke begiratu batean gure bailararen erradiografia orokorra, baina herri eta txoko bakoitzaren zertzeladak eta ñabardurak desberdinak dira, baita azken mendean populazioan, herritarren nolakotasunean eta paisaiaren itxuran izandako aldaketak ere. Horietako aldaketa batzuk eskualdean eragin duten faktore propioak izan dira, eta, beste batzuk, Gipuzkoa osoan, Euskal Herrian nahiz nazioartean ere eragin dutenak.

Atzera begira, 1877. urtean, 24.908 biztanle ziren Urola Kostako 11 herrietan INEk emandako datuen arabera, eta egun, 145 urte geroago, oso bestelakoa da egoera: 76.475 biztanle ditu eskualdeak. Hamarkadaz hamarkada goranzkoa izan da populazioaren bilakaera, eta ez da egon biztanleria jaitsi den hamarkadarik, nahiz eta denbora tarte bakoitzean ez den modu berean hazi herritarren kopurua. Herrien tamainan eta biztanle kopuruan ere aldaketak izan dira 1877. urtetik hona. Duela 145 urte, esaterako, Azpeitia zen eskualdeko herririk jendetsuena, 6.379 biztanlerekin, eta Azkoitia zen zerrendan hurrengoa, 4.901 biztanlerekin. Egun, ordea, Zarautz da, alde handiz, biztanle gehien dituen herria: 23.271 herritar. Dena den, duela 145 urte, 2.204 biztanleko herria zen, eskualdeko bosgarren jendetsuena Azpeitiaren, Azkoitiaren, Zestoaren eta Aiaren atzetik.

Urola Kostako biztanleriaren bilakaera, 1877-2021




Urola Kostako biztanleria herrika

	1877	1887	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981	1991	2001	2011	2021
Aia	2.377	2.279	2.287	2.367	2.339	2.529	2.594	2.765	2.617	2.393	1.935	1.681	1.610	2.024	2.056
Aizamazabal	394	436	410	415	431	474	490	506	563	559	513	531	531	761	795
Azkoitia	4.901	5.075	5.504	5.948	6.777	8.016	8.122	8.065	8.561	10.317	11.029	10.512	10.272	11.394	11.657
Azpeltia	6.379	6.548	6.155	6.756	6.976	8.003	8.319	8.901	9.628	10.843	13.196	13.427	13.708	14.429	15.191
Beizama	696	689	675	646	606	566	588	534	460	306	175	175	160	176	144
Errezil	1.703	1.618	1.608	1.614	1.611	1.491	1.500	1.448	1.419	1.193	762	677	615	612	578
Getaria	1.013	1.199	1.330	1.536	1.809	2.006	2.005	2.082	2.253	2.658	2.415	2.349	2.406	2.659	2.794
Orio	984	1.009	1.274	1.494	1.777	2.006	2.158	2.385	2.843	3.899	4.359	4.258	4.421	5.319	6.096
Zarautz	2.204	2.653	3.019	3.167	3.722	4.835	5.547	6.760	8.168	11.764	15.351	18.007	21.078	22.513	23.271
Zestoa	2.469	2.477	2.666	3.120	3.163	3.315	3.323	3.575	4.309	4.402	3.835	3.383	3.100	3.631	3.769
Zumaia	1.788	1.911	2.370	2.709	2.997	3.142	3.222	3.551	4.444	6.341	7.840	8.162	8.527	9.538	10.124
Urola Kosta	24.908	25.894	27.298	29.772	32.208	36.383	37.868	40.572	45.265	54.675	61.410	63.162	66.428	73.056	76.475

Iturria: INE.

Urola Kostako biztanleriaren bilakaera, guztira eta herrika 1877-2021



Eskualdeko populazioa goraka joan den arren, herri guztiek ez dute joera bera izan 1877tik gaur arte, eta guztiak ere ez dira neurri berean hazi edo gutxitu. Duela 145 urte baino biztanle gehiago dituzten herriak honako hauek dira: Aizarnazabal (+401), Azkoitia (+6.756), Azpeitia (+8.812), Getaria (+1.781), Orio (+5.112), Zarautz (+21.067) eta Zestoa (+1.300). Txanponaren beste aldean, landa eremuko herriak daude: Aia (-321), Beizama (-552) eta Errezil (-1,125). Herri guztietatik Zarautz da proportzioan gehien hazi den herria, egun hamar bider herritar gehiago baitaude han errolatuta. Orio eta Zumaia ere asko hazi dira, eta egun 1877an



Oro har, kostaldeko herrietan izan da jende gehikuntzarik handiena XIX. mende amaieratik hona


Luxanen arabera, demografiaren bilakaeran egiten den irakurketa sarritan ez da egokia izaten

baino sei bider pertsona gehiago bizi dira herri horietan. Kontrara, Beizama eta Errezil izan dira nabarmen biztanle gehien galdu dituzten herriak. Errezilen duela 145 urte baino hiru aldiz biztanle gutxiago bizi dira, eta Beizaman, ia bost bider gutxiago.

Beraz, oro har, kostaldeko herrietan izan da jende gehikuntzarik handiena XIX. mende amaieratik hona, eta aldaketa horretan hainbat faktorek izan dezakete eragina; besteak beste, turismoak, eta Urola Kostaren kasuan, lurraldeko hiriburutik gertuago egoiteak. Gehien hazi diren bi herriak –Zarautz eta Orio– Donostiatik gertu daude, esaterako. Turismoaren kasuan, Zarautzen kasua aipatu du Demografian doktorea den Marta Luxan soziologoak: "Ikertzekoa da egun Zarautzen errolatuta dauden guztiak bertan bizi ote diren edo horietako batzuk udatiarrak soilik al diren. Horrelako gauzak gertatzen dira eta". Era berean, turismoaren bueltan sor daitezkeen lanpostuek jendea erakar dezaketela ere aipatu du hark. Albo kalteak ere eragin ditzakete faktore horiek, adibidez, etxebizitzaren prezioak garestitzea: "Apartamentu turistikoek prezioak asko garestitu ditzakete herri horietan".

Bilakaera, negatiboa?

Populazioaren gorakada eta beherakada sarritan izan ohi dira albistegietako lerroburuak, eta azken hamarkadan, bereziki,



Urola Kostako adin-piramidea, 2021

jaiotza tasaren jaitsieran egiten dute azpimarra hedabideek. Luxanen arabera, demografiaren bilakaeran egiten den irakurketara sarritan ez da egokia izaten, ordea: "Joera dago esateko populazioa igotzen bada bilakaera positiboa dela, eta jaisten bada, negatiboa. Ez du zertan horrela izan. Ikuskera aldatzen badugu eta konturatzen bagara azken 40 urteetan Mendebaldean jendea sortu dela, krisi ekologikoaren ikuspegitik ez da oso berri ona".

Ildo horretatik, Luxanek dio jaiotza tasaren jaitsiera "hondamendi moduan" ikusten dela batzuetan, baina jaitsiera horren atzean hainbat arrazoi daudela. "Pentsatu behar dugu jendeak guraso izatea gauza batzuen arabera erabakitzen duela, eta horien artean, besteak beste, beren gurasoekin ez bizitzea eta ekonomikoki gutxieneko ziurtasun bat izatea daude", azaldu du Luxanek. Horrez gain, genero harremanek ere zerikusia dutela azaldu du: "Hainbat demografok aztertu dutenaren arabera, ugalkortasuna txikiagoa da genero harremanetan desorekak dauden tokietan. Esaterako, Europaren barruan, ugalkortasun handiagoa dago herrialde eskandinaviarretan. Han gertatzen dena da espazio publikoan eta pribatuan dauden genero harremanetan ez dagoela desoreka handirik".

Bestalde, biztanleriaren zahartzea eta ugalkortasuna ere lotuta daudela dio soziologoak: "Asko aldatu da jaiotzen diren pertsona horien bizitza: zenbat urte bizi diren gurasoekin, zenbat heltzen diren helduak izatera... Orain pertsona gehienok heltzen gara nagusi izatera". Julio Perez Diaz demografoaren kontzeptu bat mahaigaineratu du Luxanek hori azaltzeko: iraultza erreproduktiboa. "Hark dioenez, bizitza luzatzeak berak eragina izan du populazioan, eta dio antzeko jende kopurua egoteko nahikoa dela pertsona gutxiago jaiotzearekin. Uste dut testuingurua aldatzen ez bada ugalkortasuna aldatzea oso gauza bitxia izan daitekeela daukagun adin egiturekin".

Atzerritarren banaketa adin-taldeka, Urola Kosta eta herriak, 2021



Urola Kostako datuei erreparatuz, adin piramidean nabarmen islatzen da populazioaren zahartzea. INEk 2021. urtean ateratako datuen arabera, 40-44 eta 45-49 adin tar-teetako gizon-emakumeak dira eskualdean nagusi, eta hortik aurrera jende zaharragoaren proportzioa jaisten badoa ere, 40 urtez azpiko herritarrak baino

gehiago dira uneotan 40 urtetik 70 urtera bitarteko bailarako herritarrak. Era berean, 0 eta 4 urte arteko haurren kopurua, hau da, azken lau urteetan jaioetakoen kopurua, azken urteetako ba-xuena da.

Biztanleriaren zahartzea jomugan

Luxanen arabera, zaintzekin zer egin pentsatu beharko litzateke biztanleriaren bilakaeraren egungo joera ikusita. "Niretzako Euskal Herriak duen erronka nagusienetakoa da zaintzen krisia-ri nola aurre egin zaintzaileak esklabutzara bultzatu gabe. Nola antolatuko dugu hori? Aukera asko daude, baina argi dagoena da zaintza merkatuaren esku uzteak ez duela funtzionatzen. Momentu honetan horren isla da mugimendu feministaren al-darrikapena, hau da, zaintza sistema publiko bat sortzea". Ins-titutzioek gai horren inguruan ikuspegia aldatu beharko lukete-la ere badio soziologoak: "Jarraitzen dugu pentsatzen jende gehiagok jaio behar duela, baina argi dago hori ez dela bihar gertatuko den zerbait. Eta gertatuko balitz ere, kezkatu egin beharko ginateke; izan ere, nork zainduko ditu haur horiek?".

Gauzak horrela, "biziraupenaren demokratizazioan" egin du azpimarra Luxanek, eta prozesuari "baikortasunez" begiratu behar zaiola uste du: "Argi dago oso nagusiak diren pertsona horiek zaintzak behar dituztela, eta adin nagusiko jende asko egoteak osasungintzan eta zaintzan esfortzu berezia egitea ekarriko duela. Aldi berean, pertsona horiek beren bilobak zaintzen ari direla ere pentsatu behar da. Ez dugu pentsatu behar pertsona horiek inaktiboak direla, baizik eta pertsonak zaintzen ari direla". Horregatik, beharrak egungo egoerara egokitzea premiazkoa dela dio: "Egun ditugun pertsonak nola kudeatu jakitea da kontua, eta ondasunak modu ekitatibo batean nola banatu pentsatzea".

Aniztasuna da nagusi

Migrazioa, era batean edo bestean, beti egon da presente, azken mendeen behinik behin, Euskal Herri osoan. Hainbat

hamarkadatan, asko izan dira Euskal Herritik beste zenbait lurraldetara joan diren herritarrak, baita Euskal Herrira bizitzera etorri direnak ere. Urola Kosta ez da salbuespena; izan ere, bailarako 11 herrietan ehunka dira Espainiako Estatuko beste hainbat erkidegotatik nahiz nazioarteko herrialdeetatik lekualdatutakoak. INEk 2021an emandako datuen arabera, Zarautzen bizi dira eskualdeko udalerri denak aintzat hartuta, Espainiako Estatutik kanpoko etorkin gehien (1.361); gutxien, aldiz, Beizaman (5).

Dena den, proportzioan Azkoitia da Espainiako Estatutik kanpoko etorkin gehien dituen herria, udalerriko biztanle guztien %9,46 osatzen baitute horiek. Getaria da zerrendan hurrengoa, %8,58 tasarekin. Zarautzen, berriz, nabarmen baxuagoa da ehuneko hori; han erroladatutako herritarren %5,84 da Espainiako Estatutik kanpokoak, hau da, 5.000 biztanletik gorako herrietatik proportzioan immigrante gutxien jasotzen dituen herria da, Zumaiaren atzetik -%5,64 da hango etorkinen tasa-. Pertsona horien adinari erreparatuta, berriz, bailarako herri guztietan bizi diren etorkinen hamarretik zazpik 16 eta 64 urte bitartean dituzte, eta 64 urtetik gora dituzten etorkinak ez dira hamarretik bat izatera heltzen; Errezil da salbuespena, han etorkinen %12,9 baita 64 urtetik gorakoa. 16 urtez azpiko etorkinak, berriz %10-20 inguru dira bailaran. Azkoitia da Espainiako Estatutik kanpoko herritarren artean 16 urtez azpiko biztanleen tasarik altuena duen herria, %23,2 baitira horiek.

Kultur aniztasunak eta migrazioek eragina izan dezakete eskualdearen nolakotasunean eta bizimoduan, eta sarritan, euskararen erabilera jartzen da jomugan halakoetan. Hala dio Luxanek: "Uste dut hizkuntzan migrazioak izan dezakeen eragina herritar horien jatorriaren arabera izan daitekeela, eta egia da eragina izango duela gizartean, baina eragin horren nolakotasuna lotuta egongo da bakoitzak euskara ikasteko dituen erraztasunekin". Bestalde, egoera diglosikoa aipatu du Luxanek: "Gaztelania lehen hizkuntza duten etorkinak heltzen badira gurera, horiek euskalduntzeko politikak egin beharko lirateke. Pertsona horiek hamabi orduz lanean baldin badaude, ezin izango dute euskara ikasi. Goazen pentsatzera pertsona horiek euskara ikasteko aukera izan dezaten zer egin".

Funtsean, ukaezina da Urola Kostako biztanle kopuruaren bilakaera goranzkoa izan dela XIX. mende amaieratik gaur egunera arte, baina bilakaera hori kostaldeko herrietan gehiago igarri dela barrualdeko herrietan baino. Landa eremuko herriak, aldiz, populazioaren gainbehera eten nahi eta ezinean dabilta, beste hainbat txokotan gertatzen ari den moduan. Eta bigarren ondorio nagusia da biztanleria zahartzen ari dela, eta urtez urte geroz eta jende gutxiago jaiotzen dela. Luxanek argi du zein den etorkizuneko erronka: "Adin egitura zer-nolakoa den ikusita, gizartea nola antolatu erabakitzea da erronka".



"Bizi kalitate ona duen herria da Orio, eta hona etortzen direnak gustura bizi dira"

ANUSKA ESNAL ORIOKO ALKATEA



Anuska Esnal, Orion. IÑIGO GAITON

XIX. mendetik nabarmena izan da Oriok izan duen bilakaera demografikoa, eta azken urteotan ere etenik gabe hazten jarraitu du. Anuska Esnal (Orio, 1980) Orioko alkatean arabera, "erronka handia" da herrian jende asko bizitzea, baina aniztasunaren ikuspegitik, begi onez ikusten du hori.

Orioko biztanleria igotzen joan da azken urteetan. Zer balorazio egiten duzue azken urteetako igoeraz?

Baditu bere alde onak, batez ere herrira pertsona berriak etortzeak aniztasuna dakarrelako berarekin, eta hori aberatsa da, zentzu guztietan. Aldi berean, erronka ere bada nortasunaren eta transmisioaren ikuspuntutik. Gainera, herriko baliabideak sendotzeko beharra sortzen du horrek.

Azken hamar urteetan ia mila biztanle irabazi ditu Oriok; egun, 6.096 biztanle

"BIZTANLERIA HAZTEAK INBERTSIO EKONOMIKO HANDIAGOAK EGITEA ESKATZEN DU"

ditu. Langa hori igarotzen duzuen lehen aldia da, ezta?

Bizi kalitate ona duen herria da Orio, eta hona etortzen diren herritarrek gustura bizi dira. Hori beti da poztekoa, baina baita erronka ere, herria txikia delako eta biztanleria nabarmen hazteak inbertsio ekonomiko handiagoak egitea eskatzen duelako.

Orio Donostiaren ondoan egoteak biztanleriaren gorakadan eragina izan duela iruditzen al zaizue?

Donostiaz gain, Zarautz ere ondoan daukagu, eta Orioko etxebizitzaren prezioak merkeagoak dira herri horietakoekin alderatuta. Gainera, Orio bi herri horiekin oso ondo dago komunikatuta, eta horrek jende asko erakarri du. Azken hamarkadan etxe asko eraiki dira herrian, pixkanaka bada ere, etenik gabe, eta gure iritziz, ez da oso modu eredugarrian egin. Izan ere,

eraikitako etxeetan eta egindako auzoetan ez dago ia gune komertzialik, eta eraikinen beheko lokalak ere etxebizitzetara bideratu dira; horrek lotarako eremuak sortu ditu. Bestalde, azken hamarkadan hondartzaren guneak jasan du aldaketa handiena, asko zabaldu baita, eta herritarrontzat galera handia izan da hori, hondartza bera eta kanpina altxorra baitziren guretzat. Horregatik, batzuei asko kostatu zaigu zati hori herriaren parte dela sentitzea. Hondartza natural eta basatia genuen, eta 90eko hamarkadaren amaieran hura eraistea eta porlanean oinarritutako malekoia egitea erabaki zuten, oso bestelako eredu jarraituz. Dolu bat izan da gutako askorentzat, lehengo hondartzarekin amesten genuelako.

Etxebizitzaren prezioa oso altua den bi herriren artean dago Orio. Herriaren antzeman al duzue halako aldaketarik?

Bai. Aldamenean ditugunak oso herri turistikoak dira, eta horrek kanpotarrei begira sortutako herriak eraikitzea eraman ohi gaitu. Eskaria altua denean, prezioa ere asko igotzen da, eta etxebizitza erostea ezinezkoa izaten da. Aldi berean, jendeak alokairuko etxeak turismora bideratzen dituzenez, herritarrok ez dugu alokatzeko aukerarik, eta dauden etxeak, ez daude eskuragarri. Gaiak asko kezkatzen gaitu, egoera zaurgarrienean daudenei eragiten baitie horrek.

Zein da hori kontrolatzeko jarraitu beharreko bidea?

Tamalez, ez dago gure esku. Merkatu neoliberallean udalak ezer gutxi egin dezake hori aldatzeko. Ahal dugun neurrian, etxebizitza publikoak eta herritarrei zuzendutako alokairua sustatzeko politikak bultzatu nahi ditugu, eta horretara bideratuta dago gure plan estrategikoa.

Biztanleriaren zahartzea da azken urteetako erronka nagusienetako bat. Zer egingo du Orioko Udalak horri aurre egiteko?

Herriarentzat erronka handia planteatzen duen beste gai bat da hori. Egun, oriotarren %17 inguruk 65 urtetik gora dituzte, eta horrez gain, bizi itxaropena asko luzatu da.

"IKUSI DUGU EUSKARAREN ERABILERAK BEHERANZKO JOERA HARTU DUELA HERRITARREN ARTEAN"

Horren aurrean, baliabideak eskaintzen ditugu herritarrek zahartze aktiboa eta osasuntsua izan dezaten, eta gainera, zaintzaile lanetan ari direnei baldintza egokiak bermatu nahi dizkiegu, zaintza profesionalizatua sustatuz. Erronka nagusia, hori guztia komunitatean naturaltasunez txertatzea da, herrian bizi direnen ongizatea bermatzeko baliabideak eskura jartzea baitugu helburu.

Jaiotza tasari dagokionez, kezka eragiten al dizue Orioko datuak?

Nabarmen jaitsi da jaiotza tasa Orion. 2021ean 40 ume jaio ziren, eta 2018tik beheranzko joera nagusitu da. Oriokoa ez da, ordea, kasu bakarra, gizartearen orokortuta dagoen joera baita hori. Pozten nau familia plangintza eta ama izatea egun aukera direla pentsatzeak, baina gehiago kezkatzen nau guraso izan nahi eta ezin dutenen egoerak. Lan baldintzei eta soldatei lotutako erabakia izaten da askotan, eta etxebizitza eskuratzea eta kontziliazioa amets bilakatzen dira. Horregatik, guraso izateko aukera guztiz baztertu behar izaten dute askok. Eta guraso izateko zailtasun biologikoak dituztenentzako alternatibak ere ez daude poltsiko guztien eskura.

Euskararen erabileran ere eragina izan ohi du beste herrietako nahiz herrialdeetako jendearen etorrerak. Nola ikusten duzue egoera?

Bai, eta ikusi dugu euskararen erabilerak ere beheranzko joera hartu duela herritarren artean. Buru-belarri ari gara kezka horretatik sortu den argitaratzear dugun Euskararen Plan Estrategikoa prestatzen.

Eta etorkinen kopuruaren aldetik, zein da Orioko erradiografia?

Ditugun datuen arabera, momentu honetan herritarren %18 dira etorkinak; herritarren %8 Espainiako Estatutik etorri dira Oriora, eta %10 munduko beste hainbat herrialdeetatik.

Hemendik hamar urtera, Orio zer-nolako herria izatea nahiko zenukete?

Herritarrak ondo eta aske bizi diren herria izatea nahiko genuke.

"Nituen ametsak, gogoak eta proiektuak gauzatu ahal izateko aukera eskaini dit Beizamak"

ÍÑIGO ALTUNA BEIZAMAKO HERRITARRA



Íñigo Altuna Beizamako aterpetxearen kanpoaldean. ANARTZ IZAGIRRE

Beizamak XIX. mendearen amaieran zituen biztanleria halako bost gutxiago ditu egun. Herria husten joan da hamarkadaz hamarkada, baina badira Urola Kostako herri txikienera bizitzera joateko apustua egin duten herritarrak ere. Íñigo Altunak (Bilbo, 1978) 2009. urtean hartu zuen hiria utzi eta bikotekidearekin Beizamara bizitzera joateko erabakia. Han bizi da ordutik.

Hiri handi batetik herri txiki batera joan zinen bizitzera, kasu honetan, Bilbotik Beizamara. Zerk bultzatu zintuen erabaki hori hartzera?

Nire jatorriarekin dikotomia dagoela esango nuke.

Bizimodu eta kultura hiritar batean hazi nintzen, baina aita baserri batean jaio zen, eta bere jaiotetxea gure

"DENON KEZKA DA DESPOPULAZIOA, ETA BIZTANLE GEHIAGO ERAKARRI BEHAR DIRA"

etxetik hamabost minutura zegoen. Gaztaroa, beraz, urbanoa izan nuen, baina naturarekin ere hartu eman handia izan dut. Ez nuke esango, beraz, erabat hiritarra naizenik. Bikotekideak eta biok landa eremuko herri txiki batera bizitzera joateko erabakia, batez ere, nik komunitate txiki batean bizitzeko gogoia nuelako hartu genuen. Espektatiba handirik gabe etorri ginen Beizamara bizitzera; gainera, ezerk ez gintuen lotzen herri horrekin.

Bizimodu aldaketa handia sumatu al zenuen?

Bai, batez ere logistika aldetik. Hiri batean bizi zarenean, egunean eguneko erosketak egiten dituzu, eta dena eskuragarri izan ohi duzu edozein momentutan. Beizaman bizitzeak, ordea, dena planifikatu beharra

eskatzen du, eta kontsumo antolatua goa gauzatzen dugu hemen. Hirian bizi zarenean, bestelakoa da kontsumoa; izan ere, okindegi baten paretik pasatu eta donut bat ikusten baduzu, jateko gogo sartzen zaizu. Hemen, berriz, nahita ere ez duzu halakorik sentitzen. Gainera, kotxearen menpe bizi gara.

Egun 144 biztanle ditu Beizamak. Urola Kostako herririk txikiena da, eta Gipuzkoako txikienetarikoa ere bai. Kezkatzen al zaitu populazioaren beheranzko joerak?

Asko. Beizamako Udala plan estrategikoa lantzen ari da, eta herri batzarrak egiten. Denon kezka da despopulazioa, eta horren aurka borrokatzeko biztanle gehiago erakarri behar dira herrira. Etxebizitza berriak egingo dituzte plazaren inguruan, baina gainontzean, herrian ez dago etxebizitza huts askorik; daudenak, gainera, jabetza pribatukoak dira. Oraingo erronka da hutsik dauden etxebizitza horiek mobilizatzea zein etxebizitza berriak egitea. Gu iritsi ginen garaian, nire belaunaldiko bospasei familia ere etorri ziren Beizamara, eta denok izan gara erreproduktiboak, baina belaunaldi batzuetan hutsunea dago. Orain, 3 eta 13 urte bitarteko hamasei ume daude herrian.

Herrigunean bertan zenbat pertsona bizi zarete?

Herrigunean 30 bat pertsona bizi garela esango nuke. Beizamako biztanleria oso sakabanatuta dago, eta egoerak ez du asko laguntzen. Biztanle gutxi gara eta ez dugu zerbitzurik, eta zerbitzuek erakartzen dute jendea nonbaiten bizitzera. Gure neurria egokitzen diren zerbitzuak sortzen hasi gara, Beizamako herritarrok behintzat gustura egon eta finka gaitezen, baita etor daitezkeen horientzat herria erakargarri egiteko ere.

Biztanleria zahartzen ari da, eta herri askotako erronka da hori. Ikusten al duzu kezkatzeko arrazoirik?

Baserri askotan adineko jendea bizi da, eta horietako batzuk, gainera, bakardade arriskuan daude, nahiz eta familia inguruan izan; batzuk beste batzuk baino

zaurgarriagoak dira. Isolamendua oso handia da mugitu ezin duen pertsona batentzat, eta hirietako herritarren zahartzea kezkarria baldin bada, are gehiago herri txikietakoa.

Zure ustez, zer egin beharko litzateke jendea Beizamara erakartzeko?

Gipuzkoako Foru Aldundiak du lurralde orekaren ardura, eta iruditzen zait babes handiagoa eman beharko liekeela herri txikiei. Beizaman 144 biztanle bizi gara, eta oso mugatuta gaude. Talde eragilea osatzen dugunok geure bizimodua ere badugu, eta ezin ditugu ipurdi berarekin hamaika leku bete; ezin ditugu ekimenak geure kabuz bakarrik egin, teknikariak behar ditugu herritarren zerbitzura. Urkomek, esaterako, asko laguntzen digu. Dena den, babes gehiago behar dugu, eta ezin dugu pentsatu Beizama 144 pertsonaren artean soilik atera dezakegula aurrera.

Beizamako aterpetxean egiten duzu lan azken urteetan. Bertan bizi eta lan egiteko aukera izatea abantaila iruditzen al zaizu?

Bai. Edonori gustatzen zaio lanera joateko kotxearen beharrik ez izatea. Gainera, nik bizi egiten dut egiten dudana, eta sekulako abantaila da Beizamara datorrenari herriak eskaintzen diona erakustea. Nituen ametsak, gogoak eta proiektuak gauzatu ahal izateko aukera eskaini dit Beizamak. Bestalde, orain zuntz optikoa dugu herrian, eta jendeak etxetik ere egin dezake lana. Hori sekulako abantaila da.

Eta zer-nolako ekarpena egiten dio aterpetxeak herriko bizitzari?

Aterpetxean antolatzen ditugun bisitetan baserritarrengana joaten gara, bisitariak haien bizimodua ezagutu ahal izateko. Gure kasuan, ekarpen ekonomikoa baino garrantzitsuagoa da herri txikietako eta landa eremuko bizimodua bistaratzea. Geroz eta bizimodu urbanoagoa daukagu hirietan zein herrietan, eta elikagaiak nola eskuratzen diren ez dugu

ikusten, adibidez; puskatu egin da landa eremuarekin genuen harremana.

Aterpetxean egiten dugun lanarekin, gure aletxoak jarri nahiko genuke. ■

"BEIZAMAKO BIZTANLERIA OSO SAKABANATUTA DAGO, ETA EGOERAK EZ DU LAGUNTZEN"



Desnibela 0 m
Zailtasuna ★ ★ ★ ★ ★
Luzera 3,6 km
Denbora 50 minutu

Erreferentziak
0.00 Asti futbol zelaia
0.15 Sakeletxeko lezkadia
0.25 San Pelaio
0.50 Zarauzko hondartza



ERREKAREN BIDETIK ITSASORANTZ

MIREIA GALARZA BASTIDA

Urbanizatutako lekuek jan dituzte gure eskualdeko eremu natural asko, eta horrekin batera desagertu dira hainbat paisaia aberats. Gertatutakoa gertatu bada ere, existitzen dira oraindik hain bereziak diren inguruneak, zentzumen guztiak adi edukitzea merezi dutenak. Zarauzko hezeguneak dira horietako batzuk, hain zuzen ere.

Hilabete honetako ibilbideak Asti futbol zelaian du abiapuntua, askaldegian. Autobide azpitik, futbol zelai aldera abiatu behar da hasieran, eta Asti eskubian utzita, ezkerretara dagoen bidezidorra hartu. Izan ere, haltzadi ederra topa daiteke bertan, hormigoizko ingurua alde batera utzi eta beste errealitate batean murgiltzen lagunduko diguna. Eremu ez babestua da hori, Iñurritzako biotopotik kanpo geratzen dena, eta urria, ez baitaude euskal eremuetan horietako asko. Behin ibilgune motz hori amaituta, Sakeletxeko lezkadia izango da bigarren geldialdia. Horretarako, atzera egin behar dira 100 metro inguru, Asti aldera, informazio panela aurkitu arte. Ur gezaz gain, hainbat garaitan ur gazia ere iristen da leku horretaraino. Handik, bidegorria jarraituz, Iritako hezeguneraino iri-

tsiko da mendizalea, eta nahi izanez gero, gasolindegia inguruan dagoen bidezidorra jarrai dezake, ingurua barrutik ezagutzeko.

San Pelaio auzo eta ermita pasatuta, Nafarroa kaletik Iñurritzako biotopora iritsiko da mendizalea, babestutako eremura, zehazki. Zubi Ondo jatetxearen alboan markatuta dagoen bidetik padura eta duna ekosistema bikaina aurkituko du, baita fauna, landare nahiz zuhaitz sorta aberatsa ere. Pixkanaka-pixkanaka, bideari jarraituz, hondartza ikusiko du mendizaleak. Eta nork daki; urtearen garaia arabera, ibilbideari amaiera emateko bainu bat hartzea ideia aproposa izan daiteke.

Datua

Iñurritzako biotopoa 1997ko otsailaren 25ean izendatu zuten eremu babestu. Eremu horrek ia 180 hektarea hartzen ditu. Hegazti mota askok gune hori baliatzen dute beren migrazio mugimenduetarako. ■



Ikusi eskusiban Xabat Olaizola eta Aitor Leiza Arkamurka natur taldeko kidea txangoan, QR kodea eskaneatuta.



TELEBISTAN ERE

GUKA!



Gurasoak, SUPER HEROIAK?



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Juan Luis Romatetek aurreko zenbaki batean aipatu zuen bezala, "zure heroiak ezagutzea arriskutsua dela diote".

Txikia nintzenean, gure gurasoak ziren gure Super Heroiak.

Txikia nintzenean, gure gurasoak indartsuenak ziren. Gogoratzen dut gure aitak nola botatzen gintuen airera hondartzan bainatzen ginenean, gero zanbuila egiteko. Gogoratzen dut gure amak jostailuak zeudeneko kaxaren tapa pisutsu hura nola irekitzen zuen.

Txikia nintzenean, gure gurasoak jakintsuenak ziren. Gogoratzen dut gure aitak beti bazekiela nola konpondu arropak eta jostailuak. Gogoratzen dut gure amak beti zekizkiela eskolako lanen erantzunak.

Txikia nintzenean, gure gurasoak guapoena ziren. Beti ondo jantzita, helduen arrokekin eta kolonia usain goxoarekin.

Txikia nintzenean, gure gurasoek beti zuten arazoaren konponbidea.

Gero, nerabe bihurtu nintzen. Gure gurasoak ez ziren indartsuak, ez zekiten ezer, beraien arropak zaharren arropak ziren. Eta kolonia horiek usain gehiegi hartzen hasi ziren. Nerabe bihurtu nintzenean, beraien konponbideak gure arazo bihurtu ziren. Nerabe bihurtu nintzenean, ustez, gure gurasoak ezagutu nituen, eta ez zitzaidan gustatu ohartzea pertsonak zirela. Akatsak zituztela, eta ez zirela perfektuak.

Garrantzitsua da nerabezaroan gurasoengandik banantzea. Behar bat da. Lagunekin atxikimendu loturak indartzen dira, talde bateko parte hartzaile aktiboak bihurtzen dira, etxetik kanpora esploratzen hasten dira. Gogoratu duela 100.000 urteko garuna eta oraingoa oso antzekoak direla. Garai haietan, nerabe baten gurasoak oso zaharrak ziren, eta tribu berria bilatzen ez bazuen, bere bizitza arriskuan egongo zen. Orain ere, instintiboki, nerabeak bere tribua bilatzen du, bizirauteko.

Laburbilduz, nerabearen garuna beste testuinguru batean bizitzeko prestatzen hasten da, baina testuingurua ez da aldatzen, eta garai honetan guraso asko dena oker egitearen sentsazioarekin bizi dira.

Horrek guztiak asko kezkatzen gaitu, beldurtu, haserretu..., eta ez dugu onartzen gauzak aldatzen ari direla. Eta gatazkak sortzen dira. Ez da erraza nerabe izatea, eta ez da erraza nerabe baten guraso izatea momentu askotan, etengabeko kontraesanetan bizi direlako: "Nire tribua bilatu behar dut, baina gurasoek ez didate uzten lagunekin ateratzen". "Badakit gure seme-alabak bere lagunekin ateratzeko beharra duela, baina ez zait iruditzen segurua egin nahi duten plana". "Ez ditut gure gurasoen eskakizunak bete nahi, baina ez daukat beste leku batean bizitzeko aukerarik".

Lasai, orain heldua naizela, gure gurasoak berriro gure Super Heroiak dira. ■

Izan korrika laguntzailea

EKIN KORRIKARI!
12 euroren truke, garrantzitsuena lortuko duzu: AEKren euskaltegiei laguntzea. Horrez gain, pina eta txartelaren abantailak eskuratuko dituzu.

LORTU TXARTELA!
AEKren euskaltegietan eta korrika.eus-en

22.korrika
HITZEKIN
Amurriotik Donostia
2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era



HAU DA
LIRIDINGA!

SUDOKUAK

Beheko sudoku hauek gainera irudiko laguntxoekin ibilerarekin dute zerikusia. Barraskiloa ASTIRO doa beti, eta erbia, berriz, ARIN. Osa itzazu bi sudokuak, hutsik dauden laukietan behar diren hizkiak idatziz (seiko sudokuan A, S, T, I, R eta O, eta lauhoan A, R, I eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Bilatu

Animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?




Handitik txikira

Ordene itzazu hartz hauek handitik txikira, 1etik 9rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 9).



NOLA
SORTZEN DIRA
UMEAK?

Nola lortzen dira erantzunik gehienak? GALDEZUZ, jakina. Hitz ederra, sudoku handi hau osatzeko. Zortzi hizki dituzu hutsuneak betetzeko (G, A, L, D, E, T, U eta Z).





Hara!

Gaixoak pinguinoak!
Laster beren bizimodua
egokitu beharko dute,
Lurraren tenperatura
igotzen ari baita. Beno,
baina hemen ez dirudi
horren gaizki daudenik
ere, ezta? Aurki itzazu
bi irudien artean dauden
aldeak. 16 dira guztira.



DOMINOAN



Bete itzazu
lauki zuriak
domino-zati
honek
zentzua
izan dezan.



Eguzkia · Lurra · ilargia · meteoritoa · planeta · izarra

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA

7
MARES

Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09

a3 diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52

Aita Mari
JATEETXEA ZUMAIA

679 10 31 67
Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijateetxea@gmail.com

f t i

AIZPURUA
LIBRURERIA DEPENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe - Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 behe • Zumaia
943-54 35 70 • 688 73 38 56

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Arotzategia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31

ARDANTZABIDE
TABERNA

Ardantzabide, 12
943-57 22 47

OKINDEGIA
Arkupe

Nausia, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-xopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943-86 14 85

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behe
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel/faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net

Basodi
albaitaritzza

Albaitaria
Itzi Gormendia

Basodi, 7, behe • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadiclinivet.com
www.basadiclinivet.com

Goloz: 11-13 / Arriakale: 16-19:30 / Astelehen golozan eta larunbatetan itxia
Lamiakidatzen: 605 72 87 07 Elteiz etxeok zerbitzua

Jarri zure iragarkia
BALEIKEn
943-86 15 45

BALEIKE.eus

Belztasuna Goi Kretazeoaren zurrunbiloan

Flyscha lerro zuzen eta bertikalekin irudikatzen dugu. Badago, ordea, beste mota bateko flyscha Euskal Kostaldeko Geoparkean; ilunagoa da, lerro zuzenen orde, marra okarren kakofonia batez jantzitakoa. Deba eta Mutriku arteko flysch beltza da. Sakonetako edo Algorriko flyschean bezala, Lurraren garai bateko historia jakin daiteke zurrunbilo horren barrura begiratuta.

Deba eta Zumaia arteko labarretan azaleratzen den fenomeno geologikoa etortzen da burura flysch hitza irakurtzean; harriak eta material bigunagoa, buztintsuagoa, tartekatzen den liburu erraldoi formako fenomeno, alegia. Mende baldera eginda, ordea, Deba eta Mutrikuko itsasertzean beste era bateko fenomeno atzeman daiteke, flysch beltza izenekoa, hain zuzen. Ahaztu Sakoneta, Mendata edo Algorriko geruzen ordena eta harrien kolore argia; flysch beltzean historiaren liburuak beste forma bat hartzen du, desordenatuagoa, kaotikoagoa.

Espazioan bakarrik ez, denboran ere bidaiatzea proposatzen du fenomeno geologiko honek. Deba eta Zumaia arteko flyscha ez bezala –Goi Kretazeoko eta Eozeno artean du sorrera, orain dela 100 eta 50 milioi urte artean–, Debako eta Mutrikuko flysch beltza Behe Kretazeoan sortu zen, denboran atzera eginda, orain dela 115 eta 100 milioi urte arteko leihorretan. Milioika urte geroago Euskal Herria izango zen Lurraren zati hori, garai hartan, itsaso tropikal ez oso sakon batek estaltzen zuen. Geoparkeko barrualdean aurkitzen diren kareharrizko mendien sorrera eragin zuten koralezko uharri handiak Behe Kretazeo garaian.

Plaken mugimendu konstante batekin, gaur egungo kontinenteak izango zirenak oraindik eratu gabe zeuden. Egoera horretan, Iberiar penintsula izango zena gaur Britainia dagoen inguruan zegoen. Erlojuaren kontrako noranzkoan biratzen hasi zen eta Bizkaiko

Testua eta argazkiak: **Euskal Kostaldeko Geoparkea**

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador
José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57
www.eduoptika.com

RPS 18/16




EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 90 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza. 943-14 33 95

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garroa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zumbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77
matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriñdo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak



San Telmo12 943-86 07 60



golkoa ireki zuen. Irekiera mugimendu horrek indar tektoniko estentsiboen giroa sortu zuen. Pixkanaka, plataforma goratuen bidez bereizitako itsas hondo handi bat sortu zuten. Hala, Kantauri itsasoak lehen urteak bete zituela ere esan daiteke.

Ildo sakon horretan eratu zen Deba eta Mutrikuko labarretan ikus daitekeen flysch beltza. Flysch hori batez ere buztin ilunez osatuta zegoen, hareharrizko geruza turbiditikoak tartekatuz. Buztin hori materia organikoz eta piritaz osatuta dago, eta horrek ematen dio kolore beltz bereizgarri hori. Geruza horiek eremu kontinentalen higaduratik zetozen, kontinente ezpondatik erortzen ziren eta itsas hondoan turbidita handiak eratzen zituzten kanalen bidez.

Kontinentetik datozen sedimentu karstikoak ozeanoaren hondoan birbanatzen dituen itsaspeko sedimentu jausiak dira turbiditak. Konposizio desberdineko materiala tartekatzen denean flysch deitzen zaio.

Kolore beltz bitxi horrek bereizten du Debako flysch beltza Deba-Zumaia biotopoan aurki daitekeen beste flysch argiagotik. Eraketa hori, kolore ilun hori, ia beltzak diren lutita eta tupek eta turbidita horixken tartekatze konstanteek osatzen dute, ezpondan tailatutako kanoi handietatik erortzen diren grabitazio fluxuek sortutakoak. Flysch beltza ezpondatik itsaspeko lautada artean pilatzen den sedimentu sorta handi batean eratzen da. Ezpondaren eremuan, malda dagoen lekuan, sedimentazioa energia askoko ingurunean gertatzen da eta kaotikoagoa da. Gainera, sarritan, *slump* izeneko hegai irristatze ugari gertatzen dira. Aitzitik, ezpondatik urrunago, itsaspeko lautadan, uhertasun korronteen

Saturrarango hondartza.



Flysch beltza, Debako formazioan.

KOLORE BELTZ BITXI HORREK BEREIZTEN DU DEBAKO FLYSCH BELTZA BESTE FLYSCH ARGIAGOTIK

ARROKEK ITXURA DESORDENATUA DUTE, ETA HAREHARRI GERUZEI EZIN ZAIE GARBI JARRAITU

sedimentazioa lasaiagoa da, eta hareharri geruza oso ordenatuak eta albo hedadura handikoak sortzen ditu.

Noduluak haitzetan

Sedimentua arroka bihurtzeko eta finkatzeko fasean, buztin beltzak modu berezian kontzentratu ziren, eta horrek noduluen edo konkrezioen sorrera eragin zuten. Noduluek forma obalatuak dute eta sedimentuaren barruan oso dentsitate handia izaten dute. Arrauzkara formako egitura horietako gehienak kaltzita, silize edo sideritazkoak dira;

oxigeno gutxi duten itsas hondoetan oso ohikoa diren burdin mineralak dira hauek. Debako formazioan, nodulu horietako batzuk hautsi egin ziren, eta, ondoren, utzitako espazio hori kaltzita, kuartzo edo barita kristal txikiz bete dira. Nodulu horiek itsasoaren higaduraren ondorioz askatzen direnean, horman haren negatiboa uzten dute, arrokan zizelkatutako habia txiki bat izango balitz bezala.

Forma geologiko horiek Aitzandiko puntan ikus daitezke, adibidez. Itziartik jaitsita, Debako hirigunera heldu aurretik kokatzen da Aitzandi, eta flysch beltzaren Debako formazioko ebakidura adierazgarri bat ikus daiteke bertan. Sekuentzia hori lutita grisez, hareharriz eta siderita gorriakazko geruzez osatuta dago. 25 metro besterik ez dituen zati batean hauteman daitezkeen berezitasunak direla-eta, lekua interes handiko multzo estratigrafikoa dela esan daiteke. Sideritazko noduluak 15-50 zentimetro bitartekoak dira, gorriak, biribilduak eta, eskuarki, luzangak eta estratifikazioarekiko subparaleloak.

Puntu honetako arrokek itxura desordenatua dute, eta hareharri geruzei ezin zaie argi eta garbi jarraitu. Sedimentazioarekin batera gertatzen den eta *slump* izena hartzen duen irristatze mota batek eragiten du desordena hori. Ezponda eremuetan edo gertuen daudenetan, oraindik malda pixka bat duten eremuetan, ohikoa da sedimentu berriak ezegonkortzea eta ezpondan behera erortzea, eta desordena nabarmena sortzea. Lerradura hori egonkortu ondoren, sedimentu modernoenen dekantazioak lurperatzen du.

Koral arrezifea

Itsas azpian flyscha sortu zen bezala, goiko plataformetan, Euskal Kostaldeko Geoparkeko barnean, koralezko arrezifeak sortu ziren. Kareharri oso gogorak eta Arno bezalako mendiak sortu ziren arrezife horien ondorioz.

Mendi hauek 600 metrotik gorako gailurrak dituzte. Oso kareharri gogorrez osatuta daude. Kareharri horiek koralezko arrezifeekin eraiki ziren, eta plataforma altuetan garatu ziren, harik eta flysch beltza ilgoetan sortzen zen arte. Formazio hori, Urgondarreko



formazio gisa ezagutzen dena, fosil eduki handiagatik eta gogortasunagatik nabarmentzen da, eta garrantzi handiko euskal mendi gehienak sortu zituen, hala nola Hernio, Izarraitx, Udalatx, Aizkorri, Aralar, Anboto edota Gorbeia, gutxi batzuk aipatzearren.

Flysch beltza ildo sakonenetan metatzen ari zen bitartean sortu ziren arrezifeko kareharri gogor horiek, eta Debako pasealekuko eskoilera egiteko erabili ziren harrizko bloke handiak dira horren adibide bikainak. Bloke horien plano ebakiei eta leunduei erreparatuz gero, Behe Kretazeoko koralezko arrezifeak osatu zituzten organismo batzuetako fosil ugari ikus ditzakegu. Errudistak eta Chondrodonta izeneko animaliak dira harri hauetan betikorako gordeta geratu diren espezieak. Errudistak bi balba asimetriko zituzten moluskuak ziren. Balba horietako batek itxura konikoa zuen eta itsas hondoari itsatsita zegoen; bestea, berriz, Moluskuaren estalkia zen. Bibalbio horiek oso ugariak ziren euskal arroko Behe Kretazeoko sakonera txikiko itsasoetan. Geoparkeko inguruko kareharrietan nahiko erraz aurkitu ahal izateko arrazoietakoa bat hori da. Bestalde, *Chondrodontak* bibalbio handiak ziren, eta Kretazeoko itsas hondoan erdi lurperatuta bizi ziren koralezko arrezifeen babesean.

Berriki, Geoparkeak Nautilus Ikerketa eta Didaktika gela inauguratu du; bertan, Mutrikuko Flysch Beltzaren labarretatik ateratako 150 ammonite erraldoiren bilduma gordetzen da oso-osorik. Jesus Maria Narvaez bildumagileak eta haren emazte eta kolaboratzaile Esperanza Azkarragak 40 urte daramatzate fosilak biltzen eta, haiek egindako lanari esker, orain arteko deskribatutako ammonite erraldoien bilduma handiena dugu Euskal Herriko Geoparkean. ■■■

Flysch beltzaren labarretatik ateratako ammoniteak, Nautilus Ikerketa eta Didaktika gelan.



ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

KABI Patxeta Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA




Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



kalarri

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración



Julio Beobide, 2 • ZUMAIA
699 49 52 56
maximusencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Elengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industriagunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

OSA
BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49




OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Kortia Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



Rosi *Garbiketak*

**Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa**

Basadi, 3-A

tel. 943-01 63 53

Santelmoak bizitzeko era desberdinak

Pandemiak eragindako bi urteko hutsartearen ondoren, aurten bueltan izango dira San Telmo jaiak. Apirilaren 22an hasi, eta errepetizioak barne, maiatzaren 1era arte iraungo dute urdin koloreko jaiak. *Baleikeren* argazki artxiboan ere, nola ez, leku berezia dute festa horiek.

Denboran zehar egindako bidaia honetan, santelmoetako jaiak ditugu hizpide aldizkariko zenbaki honetan. *Baleikeren* artxibategiari begiratuz gero, santelmoen lehenengo erreferentziak 1994. urtekoak dira. Urte hartan bertan sortu zuen *Baleike* Zumaiako Gazte Batzordeak, baina, bitxikeria moduan, argazki hauek atera zirenean ez zegoen artean aldizkaririk. Akaso, aldizkaria sortzeko lehen pausoak ematen ariko ziren orduan, eta zuri-beltzeko argazkietan jaso nahi izan zuten urte hartako festa giroa. Trontza mozketa, harri jasotzaileak, sokatira, Aitor Korta bi lagunek bizkar gainean eramanda besoak zabal-zabal dituela, txaranga, gazte asko jaialdian parte hartzen (are gehiago plazaren perimetroan jolasak ikusten)... Garai bateko testigantza eskaintzen dute irudi horiek.

Herriko jende ezagun ugari suma daiteke irudi hauetan: batzuk ez dira asko aldatu denborarekin, beste batzuk bai; badira falta direnak ere, une horietan lan egitea tokatu zitzaielako. Horien hitzak jasotzea ere ez dago sobran.

"Gogoan dut urte haietan martindarrek Olinoiada izeneko antolatzen zutela, jolasekin, plazan, eta jende askok parte hartzen zuela", esan du Ander Intxaurrek. Aipatutako 1994ko irudi horiek jasotzen dute giro hori. Bere kuadrilla ere agertzen da argazki zahar horietako batzuetan, Odieta frontoian, berriketan mahaiairean bueltan. Ez daude guztiak, ordea; zaila da Ander irudi horietan aurkitzea. Izan ere, batzuk jaiak behar bezala disfrutatzeko beste batzuek lan egin behar izaten dute, eta, segur aski, Intxaurrek

Testua: **Juan Luis Romatet.**



Martindarrek antolatutako Olinpiadak,
Beheko plazan.

Ander Intxaurrendoren kuadrilla Odietan
egindako herri bazkarian.

**JENDE EZAGUN UGARI
SUMA DAITEKE
IRUDIETAN: BATZUK EZ
DIRA ASKO ALDATU,
BESTE BATZUK BAI**

**"EGUN NORMALETAN
LAN ASKO EGITEN
GENUEN TABERNAN,
ETA SANTELMOETAN
ERE BAI"**

lanean izango zen egun eta ordu horretan. Basadi auzuneko Juaristi taberna zeukan bere familiak, eta egun hartan bazkariak ematea tokatuko zitzaion, jaietako beste egunetan bezala; festak beste modu batean bizitzea egokitu zitzaion, barraren beste aldean. 11 urtez arduratu ziren intxaurrendotarrak taberna hartaz, 1987tik 1997ra bitartean, eta lan eskerga egiten zutela du gogoan. "Egun normaletan lan asko egiten genuen tabernan, eta santelmoetan ere lan handia izaten genuen. Egun handiak izaten ziren haiek, eta edadedun jendea etortzen zen bereziki; menu bereziak ematen genituen egun horietan beheko jangelan. Goian bai, goian hiru bat mahai izango genituen, eta ogitartekoak ere ematen genituen festetan", dio Intxaurrendok.

Basadin festa gutxi

Santelmoetan murgilduta egongo zen herria, baina giro hori ez zen Zumaiako leku guztietara heltzen. Alde horretatik, santelmoek Basadin halako eraginik ez zutela du gogoan. "Zubitxikiak herria bitan banatzen zuen, eta santelmoetako jaiak ez ziren Basadira edo Polygonora heltzen. Danborrada batzuekin egin zen saiakera bat edo beste, baina hortxe geratu zen. Tabernara-eta bai, tabernara bazkaltzera etortzen ziren beste lekuetako zumaiaarrak, baina, bestela, ez zen festa giro hori izaten".

Hala ere, lana amaitzen zuenean festaz gozatzeko aukera bazuela dio. "Lana bukatuta parranda egiten genuen, gaupasa batzuk ere bai". Denborarekin eta ardurekin baretuko ziren gogoak, baina ohitura batzuk mantentzen dituztela kontatu du. "Gure kuadrillarentzako egun berezia San Telmo egunaren bezpera, igandea izaten da. Egun horretan biltzen gara, eguerdian, eta beti izaten dugu olagarro zopa. Hori beti izan dugu kuadrillan", dio Intxaurrendok.

Herriko familia askorentzat urteko momenturik berezienetako batzuk izan ohi dira santelmoak; tradizioa gordetzeko unea izan ohi da. "Gure familia ez zen oso-oso ezaguna herrian, baina, hala ere, tradizioak, ohiturak gordetzen zituen. Ez ginen batere elizkoiak,



Festa giroa 1994ko San Telmo jaietan.

**"SANTELMOEK EDOZER
GAUZA EGITEKO
AUKERA EMATEN DUTE,
BAIMEN OSOA DUZU
EDOZER EGITEKO"**

**"AKASO LEHEN
MUGIMENDU
HANDIAGOA ZEGOEN,
BAINA EZ NAIZ NI
INOR EPAITZEKO"**

baina San Telmo eguneko prozesioa egiten zenean errespetatzen genuen tradizio hori; gaupasa eginda, prozesio bat edo beste ikusi izan dut, eta pasadan beti egon naiz isilik, beti errespetatu dut".

Pandemiak eragindako hutsartearen ondoren, berak festa hauetaz gozatzeko gogo berezirik ez duela dio tabernari ohiak. "Nik ez, baina semeak dagoeneko 13 urte ditu, eta harentzat berezia da; harentzat santelmo bereziak izango dira aurtengoak", onartu du Intxaurrondok. "Nik uste aurten sekulako desfasea izango dugula festetan. Jendea gogoz dago; inauteriak, santelmoak... pandemiaren bi urteren ondoren, batzuek behar dituzte festa hauek, eta giro handia izango da aurtengo santelmoetan".

Bidean Iñigorekin (ez du abizena esan nahi) egin dute topo Intxaurrondok eta kazetariak. Santelmoek hitz eginda, irribarre bat ateratzea biei. "Zer nahi duzu kontatzea?", dio algara artean Iñigok. "Santelmoek edozer gauza egiteko aukera ematen dute, baimen osoa duzu edozer egiteko", onartzen dute biek barre artean. Iñigoren argazkiren bat edo beste aurki daitezke *Baleikeo* artxiboan, alkandora urdina jantzita, hauek bai, koloretako irudietan.

Oroitzapenak

Biak ere gurasoak dira orain, eta beste modu batera disfrutatuko dute festez. "Egunez, agian, umeekin. Egia esan, pandemiaren bi

Gora San Telmo!!

Zumaiako merkatari eta ostalariek
jai zoriontsuak opa dizkizue!!





urteko etenaren ondoren, ez daukat gogo berezirik", dio Iñigok. Baina, pixkanaka, konbertsazioa aurrera doan heinean, oroitzapenak pizten zaizkio. Zezenak eta sokamuturrak ditu gogoan, adibidez. "Itzurun hondartzan egiten ziren, baita Carmelo Unanue inguruan ere. Guk hesitik jarraitzen genuen, baina bazen jendea arriskatzen zena ere".

Festa giroa, gaupasak, norekin irten, zeinekin bukatu... "Santelmoek badute zerbait ona, eta da edozeinekin buka dezakezula gaua, giro onean", dio Iñigok. Festa hauetan antolatzen diren ekitaldietan ez zuela parte hartzen dio. "Ez dut esango danborraden aurka nagoenik, baina urruti egoten saiatzen naiz. Agian, herri bazkarietan parte hartuko nuen, baita txosnetako kontzertuetan ere, baina bestela...". Oroitzapenak borborka, gaupasa egindako lagun taldeak prozesioarekin topo egin zuenekoarekin barre egin du. "Lagun batek ez zuen nahi prozesioan parte hartzen ari zen bere familiak gaupasa eginda zegoela ikusterik, eta ihesean, zuhaixken gainetik salto egin, tupust egin eta muturrez aurrera erori zen denen aurrean".

Belaunaldiak aldatzen badira ere, gazteek gazte izaten jarraitzen dute, eta bi lagun hauek ez dute aldaketa handirik atzematen orduko eta gaurko gazteen artean. "Akaso lehen gauzak egiteko mugimendu handiagoa zegoen, eta Gazte Batzordea, *Baleike* bera, sortu zituzten. Baina ni ez naiz inor epaitzeko", dio Intxaurrendok.

Oroitzapenak oroitzapen, axola duena da bi urteren ondoren festak bueltan direla. Oraingo argazkiak koloretan izango dira, eta ez ordukoak bezala, zuri-beltzean. ■■■

Ander Intxaurrendok, San Telmo kalean.

PUBLIZITATEA



SOLOZABAI
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak • Osteopatia • Psikologia zerbitzuak
Psikomotritizitatea • Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINTEZA
GINARRIAH

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38

talaja
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Trapaia
Taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN Izustam, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondeak (kodilloa)
Salxitrak, oilaskoak...
Garagardoko aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 575 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTZARIAK

Amaiko plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com



egutera
ZUMAIKO ENERGIA KOOPERATIBA

EGOTETIK EGITERA

Zumaian bertan eguzki energia
sortzera goaz. **Izan aldaketaren
parte, zatoz Eguterara.**

Egin aurre matrikula:
labur.eus/egutera

Zumaiko Udaletxea  

Teloia jaitsi aurretiko azken txanpa

ANTZERKIA

TESTUA: BALEIKE

Maiatzean bukatuko da iazko udazkenean hasitako antzerki denboraldia. Herriko eta inguruko herrietako antzerkizaleek makina bat aukera izan dute hilabete hauetan beraien zaletasuna asetzeko; komediak eta dramak antzeztu dira Aita Mariko oholtza gainean; komertzialagoak batzuk, artetik hurbilagoak besteak. Maiatzean jaitziko da denboraldiko azken teloia, baina oraindik ere izango da antzertiaz gozatzeko aukera. Lau obra antzeztuko dira apirilean eta maiatzean Aita Marin; haurrentzat eta helduentzat bina. Helduen saioak 20:00etan izango dira; haurrenak, berriz, 12:00etan.

Zuhaitz Gurrutxagaren eta Iker Galartzaren *Lehendakari gaia* komedia ekarriko du Txalo konpainiak apirilaren 1ean. Lehendakari hautatu berria inbestidura ekitaldirako hitzaldia prestatzen hasiko da; azken orduan, ordean, arazo larri bat sortuko zaio. Bakoitzak ezkutatzeko duen horren inguruan hausnartzera eramango ditu orduan aktoreak eta ikusleak.

Porrot egindako grinez eta gaztaroaz gogoeta egitera gonbidatuko du, bestalde, *Kopaz kopa* Ados konpainiaren lanak maiatzaren 13an. Alexander Payne zinemagilearen *Sideways* filman oinarritzen da antzezlan hau.



Ikimilikiliklik antzeztaneko une bat. MARIE DE JONGH

Miguelak eta Andresek, bizitza osoko lagunek, kopaz kopa daramatzate euren segurtasun gabeziak arrastaka, bizirik sentiarazi eta askatasunari ihes egiteko aukera emango dien zerbaiti heldu nahian.


Haurrentzat ere bai

Apirilaren 10ean Marie de Jongh konpainiak *Ikimilikiliklik* eskainiko du. Umetan hamaika arrazoiengatik beldurtzen zen Ekhi bere istorioa kontatuko dute taula gainean: beldur ugari gainditzen joan zen

emakume edadetua sorgin bihurtu da.

Kontaezinak dira Tarzan pertsonaia protagonista duten komiki, liburu eta filmak. Mar mar Teatroko lagunek Tarzan izeneko ikuskizuna sortu dute, eta maiatzaren 15ean Zumaian ikusi ahal izango da. Ehiza egun berri bat hasiko da Afrikako oihanean. Orroek betetzen dute atmosfera. Oihana ikaratu egiten da haur baten negarraren aurrean. Tximino handiak, jakin-minez, haurraren gana hurbilduko dira. ■

DOAN EZ DA DEBALDE



Euskararen plaza gara, herriaren irudia
eta komunitatearen ahotsa
ELKARREN BEHARRA DUGU

EGIN BAZKIDE

bazkide@ukt.eus 943-81 38 41



AGENDA

ERAKUSKETAK

APIRILAK 7-24

Carmen Palomero.

APIRILAK 28 - MAIATZAK 15

Lur arrasean / A ras de suelo.
Trantsizio ekosozialerako praktika artistikoak.

DEIALDIAK

BISITA GIDATUAK

Geoparkeko ondarea ezagutzeko bisita gidatuak. Informazio gehiago eta erreserbak: www.geoparkea.eus.

APIRILAK 22 - MAIATZAK 1

Santelmoak.

MAIATZAK 15

Kaleko pintura lehiaketa.

APIRILA

1 OSTIRALA

Antzerkia: *Lehendakari gaia*. Txalo.
Aita Marin, 20:00etan.

6 ASTEAZKENA

Entzunaldia: Musika tailerra.
Aita Marin 18:30etan.

Hitzaldia: Udalerrien erronkak, euskaraz. Emakumeon* Etxean "Elkar zaintzeko sistema publiko komunitario baterantz. Miren Aranguren, Emagin.
18:30etan.

7 OSTEGUNA

Korrika txikia.
Martxoaren 8a plazatik hasi eta Beheko plazaraino, 11:30etan.

Ipuin kontaketa musikatua: *Arpa magikoa*. 4-8 urte.
Haur liburutegian, 17:30etan.

Ekitaldia: Emakumeon* Etxea: *Otsandreak korrika*. 19:00etan.
Iluntzean, *Korrika etorrera*, Sagardo kupel, saiheski eta musika.

9 LARUNBATA

Hitzaldia: Regularización ya!
Emakumeon Etxea, 18:00etan.*

10 IGANDEA

Haur antzerkia: *Ikimilikiliklik*, Marie de Jongh.
Aita Marin, 12:00etan.

11 ASTELEHENA

Solasaldia: Irakur zaletasunaren inguruan. Eider Rodriguez eta Alex Gurrutxagaren artean.
Liburutegiko ikasgelan, 19:00etan.

26 ASTEARTEA

Hitzaldia: *Haur eta nerabeen ongizaterako garapen osasuntsu baterako gakoak*. Hizlaria: Leyre Cano. 12-18 urteko nerabeen gurasoei zuzenduta.
Oxford aretoan, 18:00etan.

28 OSTEGUNA

Zine forum.
Aita Marin, 19:00etan.

22. ^{ak}korrika

HITZETAKIN

bertako
igogailuak | ascensores

GIPUZKOA
943 903 450

EUSKARA, GURE HELBURU KOMUNA www.bertako.eus

Nor gara eta nondik gatoz?



SORTALDEKOAK

Egilea: Hedoi Etxarte
Argitaratzailea: Susa
Argitaratze urtea: 2021
Orrialdeak: 136
Generoa: olerkia



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Sortaldekoak Hedoi Etxarteren hirugarren poema liburua dugu. Azal erdibitua; zuri beltza eta kolorea, eta lehen planoan, neskato baten irudia. Pilar Berezibar Galdos, Hedoi Etxarteren amatxi. Haren presentziak zipriztinduta, inguruan bizi izandako gertakariekin josi du liburua egileak. Denera, lau atal eta 64 poema, eta bakoitzean, osotasun txiki bat.

Honela dio liburuaren atzeko azalean: "Landak eta Marxen burua, makilak eta Iruñeko Gaztelu Plaza, ZIUa eta Louise Michel, 1998ko Gabonak Lisboan, Dragoien batailoia Intxortan. Liburutegiak konpartitzen dituztenak, greba orokorreko egunetatik ahots apurtuekin itzultzen direnak, depilatu gabe sexuaz gozatzen dutenak. Gerra Hotza eta Zizur Nagusia, Ford Escort Nomade gorri purpura eta Audi A4 zuria. *Sortaldekoak* lanean Etxartek eguneroko xehetasunei erreparatzen die poemen bidez".

Poesia edonon egon daitekeela dio autoreak

elkarriketa batean: "Funtsean, egin dudana izan dira bi gauza: adi egon egunerokoan zer egon daitekeen poesia bat eraikitzeko, eta, hori edukita, garatu". Eguneroko gauza txikiek, bizi izandako bizipenek eta guztion iraganak badute beren poetika eta horretaz baliatu da Etxarte bere poema liburua osatzeko. Esan daiteke beretik eta bere ingurukoetatik sortu duela olerki bilduma.

"Saiatu naiz objektu zehatzetatik abiatzen eta pertsona bat definitzen duten keinuak, usainak, tokiak, irakurketak, eszenak, paisaiak, zaporeak, bizipenak ahalik eta hobekien bilatzen eta adierazten". Hunkidurari, minari eta maitasunari ihes egiten ez dion epika da olerki askoren lehengaia.

**DENERA, LAU ATAL ETA
64 POEMA, ETA
BAKOITZEAN,
OSOTASUN
TXIKI BAT**

Irakurleak, batetik, narratiba intimoa, indibiduala aurkituko du poemetan; eta, bestetik, talde bateko, klase bateko kide izatearen kontzientzia. Indibiduala eta kolektiboa nahasian. Bigarren horretan berebiziko garrantzia izango dute amatxi Pilarrek, 36ko Gerran galtzaile izan zen familia bateko kideak kontatutakoek: gerra aurreko bizitza betea, Dragoien batailoia, Intxorta, gudari errepublikarren oroitzapenak, errepresioa, erbesterratuak, haur deportatuak, Arrasateko Union Cerrajerako langileen borroka, Merced karrika, isilduen sorlekua... Zer da pertsona bere historiari, iraganik gabe? Galdetzen du poetak. Gure aurrekoen, hildakoen pozek, porrotek eta frustrazioek presentzia handia dute gudan. Nor gara eta nondik gatoz? Han izan zirelako naiz ni hemen da Etxarteren aldarria.

Ikus-entzunezko euskarrietan emandako dokumentu osagarriak ere eskaini dizkigu. Liburuaren berrirakurketa dira entzutezko eta aldi berean ikus-entzutezko poema horiek. ■

Bizipoza



ESTI CURIEL

Gu ta gure ingurukoak potrotaraino gaude", kantatzen zuen EH Sukarrak 1992an..., eta ez du ematen kontua asko aldatu denik... Azkenaldian ezinegon handia sumatzen dut inguruan eta gizartean, oro har... (ez dut ideiarik zergatik... ironia "modo on").

Noraezean gabilta, ongizate baten bila, baina nora heldu ez dakigula. Festarako, bidaiatzeko, deskonektatzeko... gogoa dugula entzuten dut maiz, neure burua ere entzuten dut halakoak esaten, baina zer egiten dugu gure bizitzekin, beti deskonektatzeko gogoa izateko? Ez da horren sinplea, badakit. Ezagutzen genuen bizitza hankaz gora jarri eta ezbeharrak nonahi ikusten ditugu; beraz, esan dezakegu ez dagoela baikorra izateko arrazoirik.

Baina, zergatik beti gauza txarrak nabarmendu? Egia esango dizuet: nekatuta nago eta nekatu egiten nau pesimismoak. Agian, ezkorrak izateko programatuta gaude, edo oinordetzan jaso dugu eta bizitza ikusteko modu hori gure

burmuinean itsatsita daukagu. Horrek dena ilun ikustera eramaten gaitu. Gainera, besteak gu izorratzeko bizi direla iruditzen zaigu maiz. Ziur? Ze *nezezidade!* Zuk uste duzu besteek, beraien burua zaintzeaz gain, zu izorratzeko beharra, plazera edota denbora dutela? *Keba*, ez dut sinesten jende gaiztoa existitzen denik (agian pixka bat inuzentea naiz).

Nire ustez, oso berekoiak direnen eta eskuzabalegiak direnen artean dago gama. Zu non zaude? Beste pertsona klase bat ere badago: txistosoa. Nik, adibidez, abilezia berezia daukat momentu zailetan txisteak egiteko. Hori bai, askotan txistea bota eta damutu egiten naiz momentuan:

NIRE USTEZ, OSO BEREKOKIAK DIRENEN ETA ESKUZABALEGIAK DIRENEN ARTEAN DAGO GAMA. ZU NON ZAUDE?

"Ene..., orain ere txorakeriak esaten". Baina nire inguruan irribarreak ateratzeko gaitasunak zoriontsu egiten nau. Momentu desegokian txiste txar edo hitz joko txar bat bota eta aurrekoaren aurpegia barrez ikusteak ez du preziorik. Korapiloa ez da askatu, baina une batez arindu egin da.

Askotan entzuten dut: "Nire inguruan bizipoza emango didan jendea nahi dut". Ederki, bada hasi zu zeu, mesedez. Goibel gaudenean txantxara joatea ez da erraza, ezta beharrezkoa ere; niri musikak laguntzen dit korapilo horiek arintzen. EH Sukarrak, beraiekin borrokatzeko eskatu ondoren, goizetik gauera dantza egiteko eskatzen zigen. Celia Cruzek, berriz, "No hay que llorar, que la vida es un carnaval, y las penas se van bailando oh oh oh oh". Beraz, haien gomendioei jarraituz, goizetan nahi duzun musika jarri eta ilunpetan, ispilu aurrean edo nahi duzun eran dantza egin ezazu hiru minutuz. Ea horrek umorea apur bat aldatzen digun. ■

yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78

Zalla

• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA
AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com

Abelin eta Bergman



JUAN LUIS ROMATET

Goiko argazkian betaurreko beltzen atzean ezkututzen den mozolo honek zailtasun dezente izaten ditu orri honetarako gaiak aurkitzeko. Zenbaki honetarako banekien, ordea, zertaz aritu, baina kostatu egin zait hitzekin espresatzea.

Urteak aurrera doaz, eta oroitzapenak ere nahastu egiten zaizkit denborarekin. Ostarrenan sartu aurretik ezagutzen al nuen Abelin? Edo behin taldean sartu ondoren ezagutu nuen? Ezin esan. Badakit, bai, Ostarrena martxan zegoela sartu ginela Karlos laguna eta biok, arrebak animatuta. Pelikulak maite nituen, baina zinema aretoan baino gehiago, etxeko sofán botata ikusten nituen, VHS zintetan. Ohikoa ez nuen beste mundu bat ezagutu nuen Ostarrenan: ni Spielbergzale sutsua nintzen; han Kurosawa-z, Ford-ez edo Bergman-ez hitz egiten zuten. Agian exageratzen ari naiz, baina utz iezadazue erromantizismo momentu hau.

Denborarekin, eta Abelinen aholkuei esker, *nirea* ez zen beste zinema batean gehiago murgildu nintzen: Indarkeriaren Belaunaldiko zinemagile handiak; telebistako belaunaldikoak; western klasikoak; espresionismo alemaniarra... Baina inoiz ezin izan dut jasan Ingmar Bergman! Oraindik Ostarrenan nengoela *Zazpigarren zigilua* bota genuen, akaso Bergmanen film ezagunena, eta lan dezente izan nuen esna mantentzeko.

Garai hartan film bakoitzaren ondoren Ihintza tabernara [gaur egun Amama] joaten ginen debatitzera. Zerbeza batzuk kolkoan, bazterrak nahasten hasten nintzen: “*The French Connection* filmak Bergmanen filmografia osoak baino gehiago balio du!”. Han hasten ziren komeriak. “Hik ez daukak ideia putarik ere zineaz!”, zioen Abelinek. Noski, txantxa behin eta berriro errepikatzen nuen.

Urte haietan asteazkenero joaten nintzen Donostiara film bat ikustera; 15:30eko trenean joaten nintzen, asko inporta gabe zer film ikusiko nuen. Ohitura hori nuela jakin zuenean, Abelin apuntatu egin zen. Auskalo zenbat film ikusi genituen elkarrekin. Eta ez, ez genuen Bergmanen filmik ikusi elkarrekin; bai, ordea, *The French Connection* Antzoki Zaharreko pantailan.

Denborarekin, auskalo zergatik, zinemazaletasuna zimeldu egin zitzaidan, eta asteazkenero Donostiara joateari utzi nion lehenbizi, eta Ostarrena taldea utzi nuen ondoren. Hala ere, mantendu egin nuen harremana Abelinekin; agian ez lehen bezain estua, baina estimu handia izan diot urte hauetan guztietan. Orain joan zaigu, txikia altueraz, handia izaeraz.

Agian, auskalo noiz, zinema aretoan elkar ikusiko dugu berriz, Abelin, baina seguru egon ez dela izango Bergmanen film bat ikusten. Zer? Zergatik ditudan eguzkitako betaurrekoak jarrita zinema areto barruan? Bada, malkoak estaltzen laguntzeko... ■■■

**“HIK EZ DAUKAK IDEIA
PUTARIK ERE ZINEAZ!”,
ZIOEN ABELINEK;
NOSKI, TXANTXA
ERREPIKATZEN NUEN**



Zure etxea alokatu nahi baduzu, guk kudeatuko dugu

Publizitatea, etxea prestatu, bezeroari
arreta, eta garbitasun lanak egingo
ditugu. Eta behar duzunean etxea
eskura izango duzu.

Atera etekina etxeari

☎ **680 33 00 62**

✉ ongietorrialokairuturistikoak@ni.eus

📷 **@ONGIETORRIALOKAIRUAK**



Idoia

ARDOTEGIA



Julio Beobide, 2
943-57 49 86

HAUR ESKOLA ETA BATXILERGOKO

MATRIKULAZIOA

Martxoaren 28tik Apirilaren 8ra

